

**Biharko
Nafarroa!**

**HAUTESKUNDE PROGRAMA
2019ko HAUTESKUNDE FORALAK**



GEROABAI

LA NAVARRA DE TODOS/AS
GUZTION NAFARROA

AURKIBIDEA

SARRERA	3
I. PROPOSAMEN POLITIKO INSTITUZIONALA ETA AUTOGOBERNUA	5
II. ZERGA ETA FINANTZA POLITIKA	9
III. GIZARTE POLITIKAK	13
IV. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA	18
V. HEZKUNTZA	20
VI. HIZKUNTZA POLITIKA	25
VII. OSASUNGINTZA	29
VIII. BAKEA ETA BIZIKIDETZA	34
IX. GARAPEN EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA	36
X. INGURU NATURALAREN ZAINZA	41
XI. TOKIKO ESPARRUA ETA LURRALDE OREKA	43
XII. KULTURA	45
XIII. KIROLA	47
XIV. GAZTERIA	50
XV. FUNTZIO PUBLIKOA, BARNE ETA JUSTIZIA	54

Aldaketa zentzuduna eta gai dena

2015eko maiatzeko foru hauteskundeetarako Geroa Baien Hauteskunde Programan, izen honekin foru hauteskundeetara aurkeztu zen lehen programan alegia, gaur egun hauteskunde programek duten sinesgarritasun eskasa aitortuz hasten ginen, baina guk Nafarroa posible baten ideia zein den eta horretara iristeko proiektua zein den ere ausardiaz eta zintzotasunez azaltzeko gure borondate tinkoa ziurtatuz. Nafarroarentzako aldarrikatzen genuen aldaketa politikoa, aldaketa zentzudun eta gai dela genioen hori, indar aurrerakoien lankidetzaren bitartez bakarrik izango zela posible bagenekien ere, horregatik, aldaketa ematekotan, ezinbestekoa zen beharrezkoa zen egonkortasuna bermatzeko eta Nafarroak behar zituen erreformei ekiteko beharrezko adostasunak bilatzea.

Horrela, helburu hura bete genuen eta lau indar politiko, Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra, Programa Akordio bat erdiesteko gai izan ginen, Geroa Baien hauteskunde programa lanerako oinarri moduan hartuz, hasten zen legegintzaldirako helburu eta ekintzak modu xehean garatuz. Gaur, asebetez esan dezakegu Programa hura bere gehienguan bete dela, Nafarroako politikan inflexio puntu eta aldaketa sakona ekarri eta gizartea izutzeko erabili ziren mito zaharren erortzea eta manu interesatuen urruntzea eraginez ere, aldaketa instituzionala normaltasunez bizi ondoren bere heldutasuna eta zentzutasun handia frogatu baita.

Azken lau urte hauetan, krisialdia hasi zenetik Nafarroak aro politiko egonkorrena bizi izan du, Nafarroa oparago, solidarioago, anitzago eta lehiakorrago baten oinarriak jartzea ahalbidetuz horrek. Lau aurrekontu eta bere gehienguan izaera soziala eta ekonomikoa duten 100 Foru Lege baino gehiago onartu dira, kaxkar jaso genituen kontu publikoak saneatu dira, Hitzarmen Ekonomikoaren berrikuntza arrakastaz negoziatu da, politika publikoei aurre egiteko diru sarrera nahikoa bermatzeko zeharo beharrezkoa zen zerga erreforma bat egin da eta 2018 jardunaldia aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetz itxi da eta, bigarren urtez jarraian, 116 euroko superabitarekin eta BPGren %16,8ko zor publikoarekin, ezarritako %17,7ko muga azpitik alegia, azken urtean, eta 2008tik lehen aldiz, 187 milioitan murriztuz. Horregatik ez da arraroa Standard & Poor's-ek berriki Nafarroa A+ kalifikazioan eta joera positiboarekin mantendu izana, baimendutako maximoa eta Estatuak duena baino bi maila gehiago; OCDEk etorkizunerako prest dagoen ekonomia moduan Nafarroa nabarmentzea; edo berriki egindako estudio baten arabera, talentua hemen mantentzeko gaitasuna dela eta, komunitate autonomoen buruan egotea.

Zifra makroekonomikoak begiratzen baditugu, Nafarroako BPGren hazkundera 2018an %3,2koa izan da (Estatuko bataz-bestekoa baino sei hamarren gehiago), 2015eko %2,9aren aurrean (Estatuko bataz-bestekoa baino zazpi hamarren gutxiago). Langabeziak %23,9 egin du behera 2015 urtearekiko, Gizarte Segurantzari 22.766 pertsona afiliatu gehiagorekin. Esportazioak direla eta, Nafarroak %12,7ko hazkunderarekin itxi zuen 2018, Estatu osoko hazkunderik handiena. Enpresa dinamismoari dagokionez, 2018an 833 enpresa sortu ziren 94 desegitearen aurrean, 2017 eta 2018 urteetan egoitza sozialen aldaketak datu positiboa ematen digularik. Azkenik, eta adierazle garrantzitsu moduan, I+G+b arloan azken urteetako beherakada gelditzea lortu dugu, eskuragarri dugun azken datuarekin 2017an %11ko hazkunderarekin, gehien hazten den bigarren komunitatea delarik.

Baina datu makroekonomiko hauek ez lukete zentzu handirik edukiko itzulkin ekonomiko hutsetik haratago edo oparotasun finantzario hutsetik haratago ez badoaz: garapen ekonomikoak gizarte kohesionatu baten berme izan behar du. Hau izan da aldaketaren Gobernuaren obsesioa, "Gobernu soziala" izatea ere eta legegintzaldi amaierako datuek horrela frogatzen dute: Errenta Bermatuari esker, langabezia laguntzarik ez duten langabetuen %50aren egoera arintzea ahalbidetu da, azpimarratzekoa izanik azken urtean prestazio hau jaso zuten 7.000 pertsonen enplegu bat gutxienez eduki dutela eta azken hilabeteetan laguntza hori jasotzen zuten familia-unitateek behera egin dutela. Txirotasun larriak behera egin du, komunitate autonomoen artean portzentaje txikiena duena Nafarroa delarik, Estatuko batezbestekoa baino 10 puntu baxuagoa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundearen arabera Nafarroako familiak hilabete amaierara hoberen iristen direnak direla nabarmenduz. Menpekotasun arloan esfortzua handia izan da, zerbitzu edo prestazioren bat jasotzen duten pertsona kopuruak %56,8 egin baitu gora 2015etik 2018ra. Lehen aldiz kopuru gutxiko alarguntasun pentsioak osatu dira gainera, pentsionistei eta alargunei gutxienerako 10.296 euro urtean bermatuz. Hezkuntzan, osasungintzan, bake eta bizikidetzan, azpiegiturretan eta beste alorretan lortutakoak hemen aipatzea luzea izango litzateke. Alor bakoitzari buruz hitz egitean xehetasunez ikusiko dira.

Hala ere, egindakoen eta betetako promesen aurrean agertzen dugun harrotasunak ez dizkigu Nafarroak orain aurrean dituen erronkak ahaztarazten, eta Geroa Baik bere eginahal guztiak egingo ditu Programa honetan agertzen den moduan horiei guztiei aurre egiteko. Garrantzitsuenen aurrean honakoak daude:

- › **Autogobernuaren defentsa, funtsezko tresna baita nafarrok modu aske eta solidarioan nahi dugun Nafarroa eraiki ahal izateko:** Estatuarekin aldebiko harremana, Hitzarmen Ekonomikoa, Zerga autonomia. Emateke dauden kompetentzien transferentzia. Foruzaingoaren aldetik Trafiko kompetentzien bereganatzea, hala nola Bide Segurtasuna, Herritar Segurtasuna eta Ingurumena.
- › **Planetaren zaintza eta klima aldaketa,** etorkizuneko belaunaldi duintasunez eta naturarekin harmonian bizi ahal izateko mundu bat utzi behar diegunaren ardurarekin: 2030 agendako helburuak. Ekonomia zirkularra eta energia trantsizioa.
- › **Emakume eta gizonen arteko berdintasuna:** genero indarkeriaren aurkako borroka. Berdintasuna lortzeko ekintza positiboa. Berdintasunerako Hezkuntza.
- › **Eskubide eta aukera berdintasuna,** sexu, bizitoki, arraza, erlijio edo pentsamendu bereizketarik gabe: zerbitzu publikoen aldeko apustua. Hezkuntza eta kultura eskuratzeko eskubidea, norbanakoaren eta gizartearen aurrerapena lortzeko oinarritzko bide gisa. Nafarroako hizkuntza propioak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Osasungintza arretarako, lan duina edukitzeko eta etxebizitza egoki bat edukitzeko eskubidea. Bizikidetzan sakondu.
- › **Eskubide eta zerbitzu sozialak eskuratzeko aukera,** gizarte kohesionatu baten elkartasunaren adierazle: norbanakoaren autonomiaren sustapena eta menpekotasunari arreta. Herritar ahulenei eta txirotasun edo bazterketa arriskuan daudenei babesa. Adineko pertsonen arreta eta zahartze aktiboa.
- › Iraultza digitala, iraultza industrial hasi zenetik indarrean egon diren paradigmen aldaketa disruptiboarekin.
- › Nafarroak Europar Batasun duen posizioa eta Europar Batasun sozialago, solidarioago eta kohesionatuago baterantz aurrera egiteko ekarpena.

I. PROPOSAMEN POLITIKO-INSTITUZIONALA ETA AUTOGOBERNU PROPOSAMENA

Sarrera. Etorkizunera begiratzen duen politika

Geroa Bai, eta bere aitzindari izan zen Nafarroa Bai ere, Trantsizioaren garaietatik nafar gizartean egon ziren aldaketa sakonei erantzuna emateko jaio ziren, agintean zeuden alderdiek ez baitzuten aldaketa horiei erantzunik emateko interesik, haien neurrira egindako Nafarroa uniforme eta politikoki apal bat patrimonializatu nahi baitzuten, bertan desadostasunik ez eta berea ez zen beste nortasunik tokirik ez zutelarik. Helburu hori bete egin zen eta horrek bere gizarte, ideologia, nortasun, kultura, hizkuntza eta lurralde aniztasunean askoz ere errealagoa, indartsuagoa eta aberatsagoa den Nafarroa ikusaraztea posible egin du.

Proposamen honek 2007ko "Nafarroa Bairen Proiektu Politiko eta Instituzionala" bere egiten du, ez bakarrik NaBai Geroa Bairen aitzindari izan zelako, baizik eta dokumentu hura bultzatu zuten pertsona eta indar politiko gehienak gaur Aldaketaren Gobernuaren sostengatu duten lau indarren artean modu transbertsalean daudelako.

Aldaketa aro politiko berri hau hasteko sine qua non baldintza izan da, baina gaizki jardungo genuke hori helmugatzat hartuko bagenu abiapuntutzat hartu ordez. Gaur egungo munduan gertatzen ari diren aldaketen abiadurak eta sakontasunak bai eta horiek sortzen dituzten ziurgabetasunek eta segurtasun gabeziek, ezer baino lehen umiltasunez jardutera behartzen gaituzte, ziurtasunak baino zalantza gehiago ditugula aitortzeko eta erantzunak baino galdera gehiago ditugula aitortzeko ere. Premisa horietatik bakarrik egin dezakegu analisi zorrotza eta zintzoa, bai antolakunde politiko moduan gure posizioari dagokionez, bai eta gaur egungo nafar jendarteak eskatzen digunari eta gure aldetik espero duenari dagokionez ere.

Eraldatzen ari den mundu bat

Orain berrehun urte baino gehiago Iraultza Industrialarekin hasi zen aroak giza historiaren eraldaketa sozial, ekonomiko eta kultural handiena ekarri du. Gure kultura politiko osoa, bere oinarri ideologikoekin, erantzunekin, printzipioekin eta baloreekin, aro horren ondorio da. Baina mundu hau gainbeheran dago, ez bakarrik eta nagusiki jipoiturik utzi gaituen krisialdi ekonomikoaren ondorioz, baizik eta trantsizio une batean gaudelako, bidegurutze batean, beste aro baterantz goaz, aro digitalerantz, eta horrek orain arte indarrean egon diren baloreak eta paradigmak kolokan jartzen ari ditu. Honek guztiak orain arte ikasitakoa birpentsatzera behartzen gaitu, bere zentzua birbideratzera eta printzipio eta oinarri berriak bilatzeko lan egitera. Honek dakarren jauzia Iraultza Industrialak nekazari gizarte tradizionalari eragin ziona baino handiagoa da oraindik, eta orain aurrean egin beharreko erronkak asko eta handiak dira, hala nola aldaketa demografiko sakonetatik eratorritakoak eta familia egiturarena, Ongizate Estatuaren jasangarritasunarena, Iraultza digitala, energia trantsizioa, ordena politikoan eraldaketak eta, beste ezeren gainetik, gure bizi kalitatea okertzearekin eta planeta beraren kolapsoarekin mehatxatzen duen klima aldaketa.

Politikatik ematen den erantzuna

Politikak (maiuskulaz), dimentsio historikoak dituen erantzukizunei eta erronkei egin behar die aurre: aldaketa horiek guztiak kudeatu eta sistema baten amaiera (industrial) eta beste baten premia hegemonikoa (digitala).

Hala ere, aro digitalak, bere argi, itzal eta ziurgabetasunekin, komunitate eta antolakunde politiko horizontalagoak sortzea eragiten ari du ere, azpitik gora doazen korrante boteretsuekin eta botere banatua duten subjektuekin, subiranotasun elkarbanatuekin eta sarean funtzionatzen duten erakundeekin. Eta hemen da Nafarroa bezalako entitate politiko txikiek bere aukera aurkitu dezaketen tokia, horrela harekin harremana beti desberdina duen Nazio Estatuaren etengabeko indar zentripetu itogarritik ihes eginez, berdintasun plano batean beste aliantzak bilatuz, gure garaietara hobe egokitzen diren subiranotasun elkarbanatuko espazio bizi eta malguak eraikitzeko. Berandu baino lehen, Europar Batasuna bezalako entitateek eta bere amankomuneko erakundeek errealitate hori onartu beharko dute eta horizontalagoak, pluralagoak, herritarrekiko hurbilagoak eta, azken finean, demokratikoagoak diren beste antolakuntza eta botere banaketa modu berrietara jo.

Nafarroaren aldeko apustua

Gure lurraldean zentratuz, inguruabar eta formulazio zein emaitza anitzekin Nafarroan historikoki gorde den autogobernu desio sakona, bere oraina eraikitzeko eta etorkizuna diseinatzeko beharrezko tresnak edukitzeko borondate tinko eta etengabe zehaztu da beti. Setakeria honek, Foru deritzogun horretan kristalizaturik, gaur inoiz baino zentzu handiagoa du, aldaketa sakonak ditugun garai honetan argi baitago murgilduta gauden eraldaketa sozial, ekonomiko eta politiko horiei aurre egiteko ezinbesteko baliabideak behar ditugula.

Helburu horiek lortzeko, antolakunde politikoa garen heinean, Nafarroako eraldaketa sozioekonomikoen lidergoan garrantzizko posizioan egotera beharturik gaude, aldaketa soziopolitikoak eta instituzionalak aldaketa sozio-teknologikoen abiadurara egokituz, pentsamolde politikoa berrituz eta Estatu (nafar) zentzuarekin Nafarroarentzako elkarbanatutako Plan baterantz aurrera eginez. Foruak Nafarroa garatuagoa, jasangarriagoa, gizarte eta lurralde aldetik orekatuagoa eta kohesionatuagoa lortzeko tresna izan behar du azken finean, interes orokorra, justizia eta parekidetasuna gailenduz. Foru Soziala da.

Printzipio politikoak eta proposamen orokorrak

1.- BORONDATEA ETA NEGOZIAZIOA ZILEGITASUN POLITIKOAREN ITURRI BAKAR MODUAN

GEROA BAIren abiapuntuan borondate demokratikoa eta negoziazioa antolakunde politikoaren zilegitasun iturri nagusiak direnaren printzipioa dago.

Herritarren borondate demokratikoaren balio gorenean dugun fede eta uste oso hori bera da, edozein ideario edo ikuspuntu politiko bortxakeria edo indarkeria bidez inposatzeko nahia modu tinkoan gaitzestera eramaten gaituena. Halaber, gure kultura politikoa nafar jendartearen aniztasunaren aitorpenean oinarritzen da, bai eta ezberdinarekiko edo iritzi ezberdina duenarekiko errespetuan eta transbertsaltasunaren onarpenean, edozein pertsonak defendatzen duen nafartasuna errespetatzeko eta ulertzeko oinarritzko ardatz politikoa baita hori. Hau da, Nafarroa sentitzeko eta bertan bizitzeko modu ezberdinak modu naturalean eta ez antagonikoan elkar existitu daitezkeela.

2.- NAFARROA SUBJektu POLITIKOA

GEROA BAIren jarduna Nafarroako herritar guztiak subjektu politiko moduan hartzean datza, eta horren aitorpena gure koalizioaren helburu estrategikorik garrantzitsuena da autogobernuaren ikuspuntutik.

GEROA BAIren aburuz herritarren borondatearen erabaki askeari ezin zaio mugarik jarri, herritarrek ezin baitute hesi iraganezinik aurkitu iraganeko zein egungo egitura politiko instituzionaletan. Hortaz, ez dago herritarrek ezin erabiliko duten marko politikorik, eta ez da zilegi edozein irredentismorik ikuspuntu demokratiko batetik. Ordena politikoa dinamikoa den gauza bat da eta etengabe egokitzen da egoera berrietara eta herritarren interesetara.

GEROA BAI n oso kontziente gara subjektu politiko horren baitan dauden Nafarroako aktore politiko eta sozialen barruan dauden ikuspegiak poliedrikoak direla. Ildo horretan marko amankomunak ezarri behar ditugu indar horien baitan, gehiengo sozialak bere autogobernuari buruz duen ikuspegia modurik zehatzenean islatzeko.

3.- ESTATUAREKIN HARREMANA BERDINETIK BERDINERA

GEROA BAIk antolatzeko eta modu askean bere sistema politiko propioa ezartzeko gaitasuna aitortzen die herritarrei, bai eta Estatuarekin edo beste instantzietan haien harremana nolakoa izango den berdinetik berdinerara adosteko ere. Horrela, GEROA BAI, demokrazia aurreratu baten ideiarekin bat eta kultura foruzale herrikoiarekin jarraitzeko eta hori eguneratzeko bere ideiarekin bat, epe ertain eta luzera nafar jendarteak Estatuarekin berdinetik berdinerara izango den paktu eratzaile bat egiteko aukera edukitzearen aldekoa da, bai eta gainontzeko Foru Lurraldeekin edozein harreman mota sustatzearen aldekoa ere. Nafarroako aktore sozio-politiko ezberdin guztiekin egingo den paktua, bazterkeriarik gabe, herritarren berrespenarekin eta horren emaitza nafarrentzako bizikidetzara marko bat izateko helburuarekin.

Epe motzera GEROA BAI Nafarroari konpetentzia mailarik gorenena ematearen aldekoa da, lehenik transferitu gabeko konpetentziak eskatuz eta FORUAREN HOBEKUNTZAren erreforma adostuarekin handituz eta osatuz. Gure forutasunean oinarritzen den Paktu Politiko berri bat, hau baita nafar jendartearen kohesiorako elementurik garrantzitsuenetako bat.

4.- EZ INPOSATU – EZ ERAGOTZI PRINTZIBIOA

GEROA BAI Ez inposatu – Ez eragotzi printzipioaren aginduarekin bat egiten du, Nafarroan dauden ideia eta nortasun-leialtasun ezberdinekiko errespetu moduan ulertuz. Horretan oinarrituz, batzuk besteengan jarduten duten inposizioari uko egiteaz gain, zati batek bestea deseroso dagoen status quo bat gainditzea iraunkorki eragozteko aukera edukitzeari ere uko egiten diogu.

GEROA BAI normaltasunez ulertzen du Nafarroan nortasun sentimendu ezberdinak egotea, hots egungo Estatu markoan eroso eta zeharo errealizaturik daudenak, eta beste aldean konfrontazioa eta Estatu berri batean egon nahi dutenak. Korrante horiek ez dira konpartimentu iragazgaitzak, horien barruan une politikoaren eta Estatu espainiarraren joera zentralisten araberrako mugimenduak daudelarik.

GEROA BAIren aburuz posizio ezberdin horiek zilegi dira eta ezberdintasun horien gainditzea errespetuaren eta akordioaren bitartez egiteak, gehiengoen eta gutxiengoen ezinbesteko jokoaren inposaketaren bitartez egin ordez, nafar jendarteari solidotasun eta kohesio asko handiagoak ematen dizkio.

Azkenik, GEROA BAIk bere egiten du immigrazioaren ondorioz dauden kolektibo eta nazionalitate anitzek Nafarroari ematen dioten nortasun aberastasuna eta aniztasuna, eta kolektibo horiek haien nortasun kulturala gorde eta garatu ahal izateko beharrezko mekanismoak martxan jartzearen alde egiten du, aldi berean geure nortasunaren elementu eta adierazpen guztien hartzaile eta partaide bihurtuz ere.

5.- FORU SOZIALA. INOR ATZEAN EZ UTZI

NBEak 2015ean Garapen Jasangarrirako Helburuak finkatu zituen txirotasunarekin amaitzeko, planeta babesteko, eta denon oparotasuna ziurtatzeko. Helburuen artean honakoak nabarmentzen dira: Osasuna eta Ongizatea, kalitatezko Hezkuntza, genero berdintasuna, Energia merkea eta ez kutsakorra, Kalitatezko enplegua eta hazkunde ekonomikoa, Industria, berrikuntza eta azpiegiturak, Ezberdintasunen murrizketa, Hiri eta komunitate jasangarriak, Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak, Klimaren aldeko ekimena, eta Bakea, justizia eta erakunde solidarioak. Zentzu horretan, Nafarroak bere autogobernuan oinarritzen diren tresnak eta bide legalak eta politikoak bere esku eduki behar ditu, bere autogobernuak hala aitortzen baitzikio, helburu horien betetzea ahalbidetzeko. GEROA BAIren aburuz Autogobernua eta Ongizate Estatu txanpon beraren bi aldeak dira, hau da, Forua herritarren zerbitzura.

6.- IRAULTZA DIGITALA ETA ERALDAKETA SOZIALAK

GEROA BAIk Nafarroa Iraultza digitalaren eraldaketa sozioekonomikora egokitzeko adorez lan egiteko konpromisoa hartzen du. Nafarroan 1960-1970 hamarkadako eraldaketa industrialaren parekidea den hau

bideratzeko aukera eta ardua dugu, eta modu zentzudunean eta barneratzailean egin gainera, eta irizpide bikoitzarekin: soziala ez bada, ez da zentzuduna. Ez bada zentzuduna, ez da soziala.

Gertatzen ari diren aldaketan hain dira zabalak, konplexuak eta sakonak, pentsaezina litzatekeela bere dimentsio orotan aurre egitea: aldaketa demografikoak eta gizarte egituretan aldaketak, ekoizpen ereduaren aldaketa, ordena politikoan eraldaketak, klima aldaketak eta energia trantsizioa.

7.- GAINONTZEKO FORU LURRALDEEKIN HARREMANA

Nafarroa beste Foru Lurraldeekin lotzen dituen lotura historiko, kultural, ekonomiko eta beste abar berezi kontuan izanda, bai eta Iparralderekin lotzen gaituztenak ere, Behe Nafarroarekin modu berezian gainera, GEROA BAIk gaitasun osoa aitortzen die Foru Komunitateko erakundeei, modu libre eta demokratikoan horien bitartez alde bakoitzak haien interesentzako komenigarrienak deritzoten harremanak ezartzeko, beti ere estatu mailan edo Europa mailan dagozkien marko instituzionalen baitan.

8.- EUROPAREN ERAIKUNTZA

GEROA BAI Europako eraikuntzarekin zeharo konprometiturik dago. Zentzu horretan, kontinenteko herrialde guztien partaidetzan oinarritzen den Europa demokratiko eta sozial baten alde egiten du, herritar guztien ongizatearen zerbitzura jarriko diren politika ekonomikoekin. Europa federal baten alde egiten dugu, non bere erabakiek gizartearen babes handiagoa edukiko duten eta hortaz zilegitasun handiagoa edukiko duten, eta horretarako Europako erakundeetan hori eraginkor egingo duten formulak artikulatu beharko dira. Halaber, Nafarroa erakunde komunitarioetan egotearen alde eta bertan partaidetza edukitzearen alde egingo du GEROA BAIk, bai eta Euroeskualdea bultzatu ere motore ekonomiko eta kulturala izan dadin. Modu berean, Pirinioetako Lan Komunitatean eta Europa Hegoaldeko Eskualdeen Konferentzian egoten jarraitzearen aldekoak gara ere.

II. ZERGA ETA FINANTZA POLITIKA

1. ARDATZAK

NAFARROAREN AUTOGOBERNU EKONOMIKOA: NAFARROA ETA ESTATUAREN ARTEKO HITZARMEN EKONOMIKOA SENDOTU

Hitzarmen Ekonomikoa Nafarroako autogobernuaren arrakastaren gakoa da, bai eta gure politika publikoak garatzea ahalbidetzen digun funtsezko tresna, horregatik, gaur inoiz baino gehiago, bere sendotzea eta bere defentsa, Nafarroarentzako nahi dugun etorkizuna eraikitzeko funtsezko helburu dira. Horregatik, Geroa Baik Nafarroako Foru Komunitatearen autogobernu ekonomiko-finantzarioa sendotzeko konpromisoa hartzen du, bai eta fiskalitate eta zerga alorrean autogobernua finkatzekoa ere, Hitzarmen Ekonomikoaren edukia, funtzionamendua eta eraginkortasuna hobetuz eta garapen ekonomikorako eta garapen sozialerako utziezina den tresna moduan defendatuz.

JUSTIZIA ETA PAREKIDETASUNA

Nafarroako Gobernuak araudi eraginkorra, modernoa, egonkorra eta gardena garatuko du Foru Ogasunarenak propioak diren alorretan, Nafarroako Foru Komunitatearen finantza nahikotasuna bermatzen jarraituko duen baliabide banaketa eredu bat finkatuz horrela. Geroa Bairen aburuz, zerga sistema parekide, progresibo eta nahiko bat gorde beharra dago, diru-sarrera eta gastu publikoen arteko oreka bikaina bermatuko duena eta baliabide publikoen kudeaketa koordinatu, eraginkor eta efikaz batekin.

POLITIKA PUBLIKOAK ETA ZERBITZU PUBLIKOAK. PERTSONEN ZERBITZURA DAGOEN FISKALITATEA

Geroa Bairentzat pertsonen oinarrizko beharrianak dira Gobernu ekimenaren ibilbide-orri eta printzipio inspiratzaile. Horregatik, funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak bermatzea izango dira gure ardatz, horien gainean Nafarroaren kohesioa eta bizi kalitatea eraikitzeko. Zentzu honetan, zorrotasun ekonomikoa eta aurrekontuetan zorrotasuna funtsezko zerbitzu publikoekin eta ekoizpen-ekonomikarekin eta hazkunde-ekonomiarekin orekatu beharko dira.

ARDURA ETA ZORROZTASUNA

Geroa Bairen aburuz, Nafarroako Gobernuaren kudeaketa ekonomikoak eta aurrekontuen kudeaketak ardura eta zorrotasunaren printzipioa jarraitu beharra dute. Gure jasangarritasun ekonomikoa bermatzea finantzen saneamendua behar dute, bai eta zorraren eta aurrekontu orekaren kontrola ere. Arduraren printzipiotik, Geroa Baik politika berri baten alde egiten du, defizit publikoaren kontrola, gastu arauaren berrikusketa eta ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko konponbide berriak modu orekatuagoan konbinatuz.

KONFIANTZA ETA EGONKORTASUNA

Lurralde batek sorrarazten duen konfiantza ukiezina den balorea da, baina behar beharrezkoa eta garrantzia handikoa, horregatik, konfiantza klima hori sortzeko, ekonomia, finantza eta zerga alorretan egonkortasuna eta segurtasun juridikoa bezalako printzipio ukigarriak bermatu behar dira, enpresa proiektuen garapena mesedetzeko funtsezko elementuak baitira. Nafarroako Gobernuaren kudeaketa ekonomikoak, ekoizpen jarduera ekonomiko bat garatzeko baldintza ezin hobeak sortzeko balio behar du, Nafarroako ekonomiaren eta bere enpresen dibertsifikazioaren eta modernizazioaren aldeko apustua eginez. Defizitaren eta zorraren kontrolarekin arduratsua eta konprometitua den finantza publikoen kudeaketa bat, jarduera ekonomikoa, inbertsioa eta suspertze ekonomikoa ahalbidetuko dituen konfiantza inguru bat sortzeko funtsezko elementua da ere.

ARRISKU BANATUA. PAKTUA

Nafarroako finantzak koordinazio printzipioan eta Foru Komunitateak Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoan bere egiten duen arrisku banatua oinarritzen da. Horregatik, Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen batitan lankidetzeta eta leialtasuna oinarritzko printzipioa da finantzen kudeaketarako.

2. AUTOGOBERNU EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN SENDOTZEA

HITZARMEN EKONOMIKOAREN EGUNERATZEA ETA BERE DEFENTSA:

- › Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren eguneratzea hitzartutako zergetan autonomia maila handiagoa lortzeko, behin betiko argituz Nafarroak zerga zuzenak eta zeharkakoak arautzeko eskumena duela Estatuarekin aurretiaz hitzartu ez diren alorretan eta, modu berean, Estatuko zerga zuzen edo zeharkakorik ezingo dela Nafarroan ezarri, hori ez bada aurretik Foru Komunitatearekin hitzartzen.
- › Nafarroako Foru Ogasuna Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Kontseiluan ECOFIN-en behin betikoz eta modu autonomoan sartu dadin eskatu, bereziki zerga politiken ikuskapenari eta horiei buruzko erabakien hartzeari dagokionez, eta Europako zerga harmonizazioari dagokionez ere.
- › Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordea Bultzatu, hori baita Nafarroaren eta Estatuaren arteko harreman ekonomiko-finantzarioak arautzeko eta bideratzeko foroa.
- › Ekonomia eta finantza alorretan Nafarroari dagozkion egin gabeko transferentzia eskatu.

3. PERTSONEN ETA LURRALDEAREN ZERBITZURA DAGOEN FISKALITATEA SUSTATU

Jarduera ekonomikoa, berrikuntza eta enplegua sustatzeko beharrezkoa den araudia fiskalaren egokitze oro bultzatu:

- › Nafarroako Foru Komunitatearen zerga sistemaren hobekuntza, eguneratze eta garapenaren alde lan egin, Nafarroako ekoizpen ekonomiaren beharrezkoen, Foru Administrazioaren nahikotasun finantzarioari eta orobat Nafarroaren ongizate eta babes sozial maila mantentzeko beharrei erantzuna emateko. Horretarako, orain ditugun enpresak zaintzeaz gain enpresa berriak erakarri beharko dira, ezin baitugu ahaztu Sozietateen gaineko Zerga eta BEZ bidez foru diru-kutxari egiten dioten ekarpena ez eta sortzen duten enplegua.
- › Zerga eta sustapen tresnen bitartez inbertsioen erakartzea mesedetu, bai jarduera eta sektore ekonomiko berriak bultzatzeko bai eta egungo jarduera mantentzeko ere.
- › Fiskalitate digitala bultzatu, merkataritza elektronikoa eta burtsa operazioen alorrean zerga berria ikertuz, gaur egun dagoen araudi gabezia dela eta operazio hauek ez baitute Nafarroan zergarik ordaintzen, horiek foru lurraldean egiten diren arren.

4. AURREKONTU ESTRATEGIKOAK. GASTUAREN KONTROLA, KUDEAKETA ARDURATSUA ETA GARDENTASUNA

Balidabide publikoen politika orekatua, gardena eta arduratsua garatu, gastu korrantearen etengabeko kontrolarekin:

- › Zerbitzu eta politika publikoen planifikazioa eta ebaluazioa, Gobernu eraginkorraren dinamikak sortzeko gai izango diren Aurrekontu Estrategikoen sistema bat bultzatu.

Aurrekontuen administrazioaren beraren eraginkortasuna bermatzeko, kudeaketa unitate hertsia atzean utzi behar dira, egituren bikoizketa eta zeharkako funtzioek gastua handitzen baitute, horregatik Nafarroako Aurrekontuak korporatiboa den ikuspegi oso batetik landu behar dira.

- › Ekonomia eta finantza mekanismo eta sistemen berrikusketa. Sektore publikoak nola gastatzen duen ezagutzea eta kudeatzea funtsezkoa da guk bilatzen dugun eraginkortasun testuinguruan. Konponbide berriak ezartzea beharrezkoa da, finantzarioki jasangarria den sektore publiko bat nahi badugu.
- › Finantza publikoen zorrotzasunean eta jasangarritasunean oinarritzen den aurrekontu politika batekin jarraitu, defizit, zor eta gastu arauaren helburuak betez, etorkizuneko hazkunde ekonomikoa ez hipotekatzeko helburuarekin, baina beti ere helburu horiek enpleguaren sorrerarekin eta politika sozialen nahikotasunarekin bateragarri eginez.
- › Ekonomia eta finantza publikoen gardentasun politikaren eta kontu irekien markoan, Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoa osatzen duten entitate guztien kontu publikoen erakusketa areagotu, aurrekontu eta ekonomia alorretan eskuragarri dagoen informazioa erraztuz.
- › Kudeaketa arduratsu baten ezarpenean aurrera egin, Foru Komunitateko Administrarritza Publikoaren jarduera ekonomikoa ezar daitezkeen lege arauetara egokitzea bermatuz, direla hauek ekonomia, finantza, aurrekontu edo zerga alorrekoak.
- › Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoan ezar daitezkeen konbergentzia teknologikorako proiektuetan sakondu, lehiakortasuna eta herritarrei zerbitzu hobea ematea erraztuko duten barne prozesuak hobetuz.
- › Gastu korronea estudiantzeko eta baloratzeko neurriak bultzatu, ematen diren zerbitzuetan eraginkortasun eta kalitate handiagoa lortzeko neurriak mesedetuz. Neurri horiek eszenatoki ekonomikoaren balizko aldakuntzen aurrean eraginkorrak izan beharko duten baliabideen kudeaketan eraginkorrak izan beharko dute.

5. EKOIZPEN EKONOMIAREN GARAPENERAKO INGURU EGOKI BAT SORTU

Baliabide publikoen kudeaketa bideratu eta garapen ekonomikoa sustatu:

- › PFEZan bai eta Sozietateen gaineko Zergan Nafarroaren zerga kompetentziaren mekanismoak sendotu, garapen jasangarria, berrikuntza, ekintzaitetza eta enplegua mesedetuko dituen ekoizpen eredu bat sustatzea ahalbidetzeko.
- › Ekoizpen ekonomiaren aldeko finantza neurriak sendotu, finantza erakundeekin lankidetzan, Nafarroako enpresen ahalmen finantzarioa areagotzeko proiektu estrategikoentzako kreditu lineak sendotuz eta abal publikoen programak definituz.
- › Nafarroako enpresa ehunean produktu berritzaileen garapena eta energetikoki eraginkorrak diren ekipamenduen erosketak sustatuko dituzten erosketak publikoaren programak sustatu.
- › Nafarroako ekonomiaren lehiakortasunerako beharrezkoak diren inbertsio estrategikoen mantentzea, bereziki nazioartekotzea edo ikerketa eta garapena bezalako alorretan.

6. EKONOMIA ETA FINANTZA ORDENAMENDUAREN ETENGABEKO EGUNERATZEA

Ekonomia eta finantza markoa mesedetzea ahalbidetuko duen zerga araudia garatu:

- › Nafarroako Foru Ogasunaren materia propioetan, bai eta ekonomia eta finantza alorretan ere, Nafarroako lege ordenamenduaren etengabeko eguneratzearekin jarraitu.

- › Fiskalitate berdearen formula berrietan sakondu.
- › Alor ezberdinetan Europako legedia analizatu, bereziki garapen sozial jasangarriaren etorkizuneko eredu ekonomikoarekin harremana dutenak, eta printzipio horiekin koherenteak diren zergaren bat ezartzeko aukera baloratu, etorkizunerako jardura ekonomikoaren sustapenean eragin positiboa sortuz. Nafarroak arautzeko kompetentzia dituen zergetan, Estatuaren bitartekaritza gabe Direktiba komunitarioak iraultzeko aukera mahaigaineratu.

7. ZERGA IRUZURRAREN ETA MURGILDUTAKO EKONOMIAREN AURKAKO BORROKARI BULTZADA

Zerga Iruzuraren Aurkako Plana garatu, Estatu eta Europako gainontzeko Ogasunekin lankidetzan eta koordinazioan:

- › Estatu eta Europako gainontzeko Ogasunekin lankidetzan eta koordinazioan zerga iruzurraren eta murgildutako ekonomiaren aurkako borrokarako, erakundearen arteko informazio trukaketa sistemak optimizatuz, zerga iruzurraren kontrol, jarraipen eta zigor ekintzen eraginkortasuna areagotzeko.
- › Gaur egungo 2016-2019 Zerga Iruzuraren Aurkako Borroka Planean aurreikusten den araudi garapenarekin jarraitu, Zerga Foru Lege Orokorra, PFEZ eta Sozietateen gaineko zerga etengabe berrikusiz eta eguneratuz, plan horretan aurreikusten diren helburuak betetzea erraztuz. Iruzurten den euro bakoitza gure politikagintza sozialetan erabil dezakegun euro bat gutxiago da.
- › Zintzotasuna eta erantzukizuna nafar gizartearen adierazgarri izan behar duten baloreak dira, foru erakundeetatik hasiz, baina erakunde sozialak, enpresak eta pertsonak berak ere barne hartuz. Norbanakoaren etika bultzatu beharra dago etika kolektibo batera iristeko, haien zerga betebeharrak betetzen ez dituzten pertsona eta enprekin zigor-ekintzak areagotuz.
- › Herritarren hezkuntza fiskala eta kontzientziario fiskala bultzatu, belaunaldi gazteenekin hasita.

III. GIZARTE POLITIKAK

Geroa Baik Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin bat egiten du, bertan proposatzen diren helburua betetzeko 5 ardatz proposatuz: planeta, pertsonak, oparotasuna, bakea eta aliantzak.

Abiapuntu hori hartuz eta aldi bereraren, Geroa Baik gure Komunitatearen Ongizate Estatu mantentzearen eta hobetzearen aldeko apustua egiten du, horretarako gure nortasunaren ezaugarri diren parekidetasun, elkartasun eta justizia birbanatzailearen printzipioetan oinarrituz.

1. Printzipioak eta ezaugarriak

Unibertsaltasuna, deszentralizazioa eta laguntza ekonomikoen gaintik zuzeneko zerbitzuak ematea lehenestea dira Geroa Bairentzako bere gizarte politiken printzipio inspiratzaileak. Halaber, politika hauek geroz eta bermatzaileagoak izan behar dute, genero ikuspuntua ardatz transbertsal moduan jarritz.

Gizarte Zerbitzuak, Osasungintzaren, Hezkuntzarekin (eta Pentsioekin) Ongizate estatuaren laugarren zutabea izanik, bere prestazio guztiak aipatutako besteak bezain eskuragarriak izan behar dute. Horregatik, beharrezkoa da ORDAINKETA PARTEKATUA arautzea eta bere ezarpena ongi mugatzea, gaindiezinak diren bi marra jarritz: Inor ez da zerbitzurik gabe geratuko baliabiderik ez edukitzeagatik eta inork ez du zerbitzu gehiago jasoko baliabide gehiago edukitzeagatik. Horrela, epe ertainera bizilekuari dagozkion prestazioetara mugatuko da ordainketa banatua, horien barruan gizarte bazterketari dagozkionak izan ezik.

Azkenik, Geroa Bairen aburuz Gizarte Zerbitzuen kudeaketak nagusiki publikoa izan behar du, ondoko irizpideak kontutan hartuz:

- › Zerbitzu Publikoen defentsa eta sustapena.
- › Jada administraritzak ematen duen zerbitzurik ez da inolaz ere pribatizatu, ez eta edozein beharrian edo egoera problematiko baloratzeko funtzioa ere.
- › Zerbitzuak ematen dituzten ekimen pribatuen partaidetza planifikazioaren maila guztietan ordenatu, erabakien hartzetik kanpo utziz, kontzertazioan irabazi-asmoa duten erakunde modu mailakatuan kenduz eta ekimen soziala eta ekonomia sozialaren enpresak lehenetsiz.
- › Ikuskatzeak eta Zerbitzu pribatizatuen kontrola areagotu.
- › Gizarte Zerbitzu Publikoen Kudeaketarako Nafarroako Fundazioa funtzionamendu osoan jarri eta kontzertuak handitu, Osasungintza eta Gizarte Zerbitzuen alorretan erakunde publiko eta pribatuekin Kontzertuei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legearen ezarpenak dioen moduan.

2. Errealitate Sozialaren eta Gizarte Politiken Planifikazio eta Ebaluazioaren Behatokia

- › Behatokia mantentzea proposatzen dugu, barne informazioa batzeko tresna egokia dela frogatu baita, bai eta gizarte politiken planifikazioa eta diseinua bideratzea ahalbidetzen duten estudio eta analisiak burutzeko ere, gizarte politika horiek ahalik eta egokienak eta eraginkorrenak izan daitezen.

3. Lehen Arreta

- › Gizarte Zerbitzuen sistemari bultzara sendoa eman, 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko den Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen finantzaketarako Foru Dekretu berri bat onartuz eta Gizarte Zerbitzuen Lehen Arretaren berrantolaketa egin gaur Nafarroako herritarrek behar duten Lehen Arretarako ereduarekin bat, lurralde osoan Gizarte Zerbitzuetarako Zentroyen mapa modu homogeneoan osatuz eta bere funtzioak eta esku-hartzeak birpentsatuz.

4. Gizarte-inklusioa

Txirotasunaren aurkako eta gizarte inklusiorako estrategiek helburu jakinak eduki behar dituzte, politika guztiengan eragina edukitzea nahi badugu: egiturari dagozkienak, garapenekoak, sozialak (hezkuntza, etxebizitza, osasungintza...) eta baita ere gizarte zerbitzuenak. Gizarte-inklusioak gizarte politiken erdian egon behar du.

Nafarroak behar dituen gizarte-inklusio politikak eraikitzeko zutabeak jarriak ditu jada eta horiek garatzera goaz orain: alde batetik, Nafarroako Ijitoen Inklusiorako Estrategia eta bestaldetik, eta bereziki, Gizarte Inklusiorako eta Errenta Bermaturako eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea, eta 2018-2021 Nafarroako Inklusio Plana, inklusiorako eskubidea gauzatzen baitu horrek.

Geroa Baik Lege horren ezarpen osoa egiteko lanean tinko egiteko konpromisoa hartzen du, bai eta Planean eta Estrategian aurreikusten diren helburuak bere osotasunean betetzeko ere. Zehazki honakoak dira beharrezkoak:

OINARRIZKO BEHARRIZANAK ETA DIRU-SARRERA BERMEA:

- › Sistema orokorreko eta propio dugun diru-sarrera bermearen prestazioei koherentzia eman.
- › Ez-ohiko Laguntzak eta Larrialdiko Languntzak birkonfiguratu.
- › Errenta Bermatuaren eredu finkatu, babes sozialerako duen potentzialtasuna zabalduz. Zentzu honetan, burutu beharreko eginkizun bat, enpleguaren sustapenerako legean aurreikusten dena betetzea izango da, bai eta Errenta Bermatuaren atariaren gainean justu dauden pertsonentzako besteren kontura lan egiteagatik dituzken zerga kenkariak ezartzeko neurriak.

GIZARTE-INKLUSIOA ENPLEGUAREN BITARTEZ

- › Aktibazio, enplegu eta gizarte zerbitzu politiken kudeaketa integraturako eredu bat bultzatu, eta zehazkiago, Tuteran eta Burunda eskualdean burututako ERSISI Proiektuaren emaitzak baloratu, bere balizko jarraipena planteatzeko bai eta beste lurraldeetara hedatzeko aukera ere.
- › Gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen aktibaziorako programak egokitu, enplegua lortzeko espazioetan gehiago sakonduz: Zentro Okupazional, Zentro Berezi edo Inertzio Soziolaboralerako Zentro gehiago. Administrazio publikoetatik ere.
- › 30 urtetik beherako gazteak sektore estrategikoetan eta praktiketan kontratatzeko legegintzaldi honetan ezarri diren enpresen mesederako neurriak, ebaluatzea eta behar den heinean aldatzea; 45 urtetik gorako pertsonak, iraunaldi luzeko langabetuak; Errenta Bermatua jasotzen duten pertsonak.
- › Kontratazio publikoan klausula sozialen betetzea eskatu, Kontratuen Foru Lege berriarekin bat, eta enpresa pribatuan ere horiek sustatu.
- › Tailer-Eskolak bultzatu eta sendotu, lau urte hauetan hasitako bideari jarraituz: bere jatorrizko diseinua berreskuratuz eta gizarte-bazterketa arrisku egoeran dauden gazteentzako erabiliz.
- › Formakuntza eta Enplegu Programa Integratu eredu berri bat bultzatu eta sendotu.
- › Babestutako Enplegu Soziala bultzatu eta sendotu, hasitako bideari jarraituz ere.

GIZARTERATZEA

- › Gizarteratzea laguntzeko egiturak sortu eta integratu, alor honetan parte hartzen duten zerbitzu ezberdinak eta horietako bakoitzak egiten dituen funtzioak artikulatuz; Batez ere Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Inkorporatze Soziolaboralerako Ekipoak (EISOL), edo Babestutako Enplegu Sozialeko proiektuak.

GIZARTE-INKLUSIOA ETXEBIZITZAREN BITARTEZ

Etxebizitza gizarte-inklusio edo baztertzeko prozesuetan erabakigarria den faktorea dela dakigun heinean, etxebizitza eta gizarte zerbitzu politiken artean beharrezkoa den harreman eta koordinazioan aurrera egiten jarraitzearen aldekoak gara.

Azpitarratzeko:

- › Etxebizitza edukitzeko Eskubide Subjektiboa aitortzen duen legea ezarri, ebaluatu eta behar balitz, aldatu.
- › Lurzoruaren kudeaketa publikoaren politikak bultzatzeko ezar daitekeen legediari berrikusketa egin.
- › Inklusio eskubidea bermatzeko akonpainamendu sozio-erresidentzialerako tresnen eskuragarritasuna eta eraginkortasuna handitu.
- › “Gizarteratzeko Etxebizitza Programa” bultzatu, bereziki alokairuko etxebizitzaren alorrean (VAIS).
- › EISOVIren jarduera bultzatu.
- › Etxebizitzarik gabeko pertsonen arreta emateko Housing First programarentzako alokairuzko etxebizitzaren eskuratzeari.

KULTURA ANIZTASUNA

Kulturen arteko bizikidetzaren alde gatazka sozialen egoeren prebentziorako eta izatekotan, horien leheneratzeko kultura aniztasunaren kudeaketan erreferentziazko eredu bat finkatzeaz gain, aurrerapauso bat gehiago eman behar dela uste dugu Nafarroak gizarte barneratzaile bat eraikitzeko konpromiso arduratsua har dezan.

Zenbait Komunitate Autonomok, horien artean Nafarroa, aurkeztutako SHARE proposamenarekin bat egiten dugu, Estatuaren artean, Estatu bakoitzaren barruan, Komunitate Autonomoen hartean edo eskualde eta udalerrien artean errefuxiatu eta asilo eskatzaileak banatzeko, bai eta larrialdi humanitario, ahulezia edo aglomerazio handiko egoeran dauden migrante ekonomikoak eta bakarrik migratzen duten adin txikikoak edo gazteak ere. Neurriak:

- › Migratzaile helduei, familiei edo adin txikiko eta gazteei akonpainamendu sozialeko prozesuak eskaintzeko proiektuak.
- › Errefuxiatuen Harrerarako programa sendotu.
- › Nafarroan errefuxiatu dauden pertsonen harrerarako Protokolo integralarekin jarraitu.
- › Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren finkatzea eta gatazken prebentziorako eta horien konpontzerako esku-hartze komunitarioa, 2017an martxan jarri ondoren.
- › Atzerritarren alorrean bai migratzaileei bai eta harrera-gizarteari zuzenduriko Arreta eta Aholkularitza Zerbitzua finkatu.

5. Menpekotasunari Arreta

LMenpekotasuna duten pertsonen arreta emateak lehentasuna izan behar du datorren legegintzaldian. Horregatik Norbanakoaren Autonomia Sustatzeko eta Menpekotasunaren Arretarako Foru Lege bat egitea proposatzen dugu, bere helburuen artean honakoak agertuz:

- › Prestazio eta zerbitzu maila bermatu, ekonomiaren gorabeheretatik kanpo utziz.
- › Zerbitzuen ordainketa partekatua birpentsatu eta birkonfiguratu, bereziki egoitzazko zentroetan.
- › Orain dagoen araudia berrordenatu.
- › Zerbitzu ezberdinetako profesionalen profilak eta ratioak eguneratu.
- › Prestazioak eta arretak lurralde osoan homogeneizatu.

Eta horietaz gain, beste neurriak:

- › Autonomiaren Sustapena eta menpekotasunaren prebentzioa sendotu: Pertsonen Autonomia Sustatzeko Zerbitzuei eta Etxez-etxeko Arreta Zerbitzuei bultzada, menpekotasuna ez duten pertsonen azken hau eskuratzea ahalbidetuz, horiek duten prebentzio izaeratik hain zuzen ere.
- › Prestazioak birbideratu: Zerbitzuen ematea areagotzen jarraitu laguntza ekonomikoek behera egin dezaten, baina edozein kasutan laguntzen zenbatekoa murrizketen aurreko mailara leheneratuz.
- › Beharrezko baliabide erresidentzialak sortu, modu horretan Zerbitzuari lotutako laguntza ekonomikoa benetan aparteko laguntza izan dadin.
- › Menpekotasuna duten pertsonen etxean egon ahal izateko zaintzaile profesionala eta/edo zerbitzu enpresa bezalako zerbitzuak kontratatze laguntza ekonomikoak arautzen dituen abenduaren 19ko 476/2018 Foru Legearen garapen baloratu eta beharrezko aldaketak eta hobekuntzak egin, bai eta kontzertazio eredu berri bat: Egoitzazko eta eguneko egonaldietarako plazen kudeaketarako eta autonomiaren sustapenerako zerbitzuen Marko Akordioa.
- › Tafalla aldeko arreta soziosanitario integratuaren esperientzia baloratu eta bere emaitzen arabera zein ekintza berri egin definitu, espazio honi bultzada sendoa eta behin betikoa emanaz, osasun zaintza eta zaintza sozialen behar handia duten pertsonen arreta hobetzeko helburuarekin.

6. Haurtzarora eta Nerabezaroa

Nafarroako Foru Komunitatean Familia, Haurtzarora eta Nerabezaroa Babesteko 2017-2023 II Plan integrala eta Haurtzaro eta Nerabezaro Lege Integral bat landu. Honakoak beteko dituen lege bat:

- › 1989ko azaroaren 20ko Haurraren Eskubidearen Konbentzioan eta Haurraren Eskubidearen Europako Karta onartu zuen Europako Parlamentuko A3-0172/92 Ebazpenean oinarriturik egongo da.
- › Haur eta nerabe guztiek auren eskubide guztiak jarduteko lege marko egokia eskainiko du.
- › Onartuko diren lege, plan eta beste politika sektorial guztietan, Haurtzaroan duen eraginaren nahitaezko ebaluazioa ezarriko du.
- › Familia, Haurtzaro eta Nerabezaroaren II Plan Integralean jasotzen diren printzipioak jasoko ditu ere.

Bestalde, eta Haur Eskola batzuk Eskubide Sozialen Departamentuaren menpe dauden bitartean, Alde Zaharrekoan eta Sanduzelaikoan eskaintzen den aukeraren hedapen mailakatu proposatzen dugu, hau da, Eskolak berak erabakitzea euskara komunikazio-hizkuntza izatea.

7. Desgaitasuna

Geroa Baik 2006ko abenduaren 13ko Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Konbentzioan agertzen den desgaitasunaren kontzeptua eta esku-hartze eredia bere egiten ditu, eta hortaz, alor honetan honakoak proposatzen ditu neurri nabarmen moduan:

- › 2019-2022 Desgaitasun Plana Garatu.
- › Irisgarritasun Unibertsalaren Foru Legea bete eta garatu. Bereziki honek aurreikusten duen Ekintza Planari dagokionez.
- › Pertsona Helduen Zaintzarako Fundazioaren berrikusketa sakona.

8. Adineko Pertsonak

Adineko Pertsonen alorrean, hiru dira proposatzen ditugun ekimenak:

- › 2017-2022 Zahartze Aktibo eta Osasungarrirako Estrategia garatu.
- › Zergapeko pentsio minimoen osagarria mantendu, alarguntasun pentsioetarako bai eta jubilazio pentsioentzako ere.
- › Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoaren transferentzia burutu dezan Estatuari eskatu, Foruaren Hobekuntza jasotzen den moduan.

9. Etxebizitza

Etxebizitza pertsona ororen eskubidea da. Diru-sarrera eta enplegu duinen bermea, etxebizitzarekin batera, funtsezkoen diren eskubideak dira, beste gainontzeko eskubideak horien gainean oinarrituz.

Etxebizitza funtsezko elementua da giza duintasuna bermatzeko. Ongi sozial bat da, oinarritzko ongi bat, eta hura zinez lortzea ezinbestean bermatu behar da. Horregatik, Geroa Bairen aburuz, etxebizitza politika guztiak, beste edozein helburu edo interesen aurretik, etxebizitza duin eta egoki bat zinez lortzera bideratu behar dira.

Premisa hauekin bat, etxebizitza politikek hiru lehentasun edukiko dituzte:

- › Alokairuari bultzada jabetzako etxebizitzaren gaineratik. Hala ere, errenta maila txikienak dituzten herritar sektoreentzako erosteko laguntzak bilatuko dira.
- › Babestutako etxebizitzari bultzada sendoa.
- › Eraikitako etxebizitzaren zaharberritzearen sustapena.

Zentzu horretan, honakoak dira burutu beharreko neurri garrantzitsuak:

- › Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboaren Legea aplikatu, ebaluatu eta behar balitz, aldatu, gazteen emantzipaziora zuzenduriko modalitatean, bai eta etxebizitzaren alokairua ordaintzeko familia askoren baliabide urritasuna arintzea bilatzen duen modalitatean.
- › 2018-2018 Nafarroako Etxebizitza Plan Estrategikoa Garatu.

10. Garapenerako Lankidetzak

Geroa Baik uste osoa du Garapenerako Lankidetzak duen balioan, beste alorretan burutzen diren ekimen eta neurriek bezain beste baitu. Uste oso honengatik planteatzen dugu garapenerako lankidetzaren proiektuei ahal diren baliabide tekniko eta ekonomikoak emateko esfortzu handiena egin behar dela, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburuen markoan.

Geroa Baik bere politiketan Agenda horrekin bat egiten du eta, Garapenerako Lankidetzari dagokionez, honakoa planteatzen du:

- › Nafarroako Lankidetzaren III Plan Zuzendaria martxan jarri.
- › Lankidetzak politikentzako zuzenduriko aurrekontuaren handitze mailakaturik, gutxienezko %0,37 ezarri 2020an, %0,43 2021ean, %0,50 2022an eta %0,57 legegintzaldi amaierarako.

IV. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Pertsona guztientzako eskubide, betebeharrak eta aukera Berdintasun erreala lortzeak dakarren erronka handiak talde politiko, talde feminista eta emakume talde eta eragile ekonomiko zein sozial guztien arteko inplikazioa eta hauen artean akordioak bilatzea eskatzen du. Politika publikoek adostasun zabala eta jarraipena eduki behar dute, bai eta horiek praktikara eraginkortasunez eramateko diru kopuru nahikoa ere, berriki Nafarroako Parlamentuan Geroa Bairen ekimenez onartu den Genero Berdintasunaren aldeko Nafarroako Paktuan eskatzen den moduan.

Nafarroan gaur egun lege marko bikaina dugu Berdintasunaren aldeko politika eraginkorrak garatzeko:

- › **Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako 14/2015 Foru Legea.** Genero indarkeriaren biktimei arreta emateko ereduaren berrikusketa beharrezkoa dela deritzogu, Nafarroan egoera honetan aurkitzen diren emakumeen beharrezko modu eraginkoragoan erantzuna emateko, bai eta bere generoa dela eta, emakume hauek pairatzen dituzten indarkeria guztiei ere (indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa edo sinbolikoa). Horientzako guztientzako babes eraginkor eta integrala bermatu beharra dago, bai eta haien birbiktimizazioa eta salaketan ez-onarpena ekiditeko.
- › **LGTBI+ pertsonen berdintasun soziala lortzeko 8/2017 Foru Legea.** 2017 urtean sortutako egitura finkatu behar dugu, baliabide gehiago emanez, bai eta Nafarroa osoko LGTBI+ kolektiboaren eskaera eta beharrezko erantzuna emateko autonomia gehiago emanez ere.
- › **Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunaren 17/2019 Foru Legea.** Lege honek bizitzaren jasagarritasuna eta pertsona guztientzako zaintza duinen bermea sistemaren erdian jartzen ditu, berdintasun politiken transbertsaltasuna bultzatzen du eta bazterkeria guztiek inamaitzeko neurriak proposatzen ditu.

Proposamenak

1. BERDINTASUNEAN HEZKUNTZA

Berdintasunean hezkuntza Nafarroako hezkuntza sistema osoan ezartzen jarraitu. Hau Skolae programaren bitartez zentro publiko guztietan egingo da, bai eta horrela nahi duten hitzartutako zentroetan ere. Hauek, edozein kasutan, hezkidetzaren proiektu bat ezarri behar dute, legediak agintzen duen moduan. Bestalde, Nafarroako Unibertsitate Publikoak genero berdintasunean formakuntza eskainiko du gradu guztietan, karrera bakoitzaren beharrezko erantzuna emanez.

2. LAN BAZTERKERIEN AURKAKO BORROKA

- › Emakumeek jasaten dituzten lan bazterkeriekin amaitzeko neurrien ezarpenean aurrera egin. Emakumeen langabezia tasa handiagoa, soldata-arrakala, kristalezko sabaia edo feminizaturik dauden sektoreen prekarizazioarekin amaitu beharra dago.
- › Horretarako, mekanismo estatistikoaren garapena bultzatuko dugu bai eta erakunde publikoen eta gizarte erakuden, sindikatu eta enpresa erakundearen arteko lankidetzaren neurri zehatzak martxan jartzeko, lan ikuskaritza bezalakoak adibidez. Malgutasun neurriak sustatuko dira ere (teledana, ordutegiaren arrazionalizazioa eta malgutasuna...) langileen baldintza partikularrei egokitzea ahalbidetzeko, bereziki zaintzen beharrezko aurrean.

3. BAZTERKERIA ANIZKOITZAREN AURREAN ARRETA BEREZIA

Aurretik aipatu diren bazterkeria egoera guztiak areagotu egiten dira emakume bat **bazterkeria anizkoitza** egoeran baldin badago. Pertsona berean bazterkeria egoera anitzak ematen direnean sortzen da egoera hau, hala nola sexu orientazioa, sexu edo genero nortasuna, gizarte maila, nazionaltasuna, etnia, adina, desgaitasun egoera edo egoera kaltetsu posizioa dakarren edozein beste baldintza. Erakunde publikoek arreta berezia jarriko dute egoera hauen prebentziorako eta horiei arreta emateko, ekintza positiboko neurrien bitartez adibidez.

4. MASKULINITATE PAREKIDEEN GARAPENA

Nafarroako erakunde publikoek gizonekin egin beharreko lana bultzatuko dute, **maskulinitate parekideen** garapenaren bitartez. **Balore eta praktika aldaketa** batekin bakarrik izango da posible **benetako erantzukidetasuna** lortzea, horretarako sentsibilizazio eta formakuntza espezializaturako kanpainak proposatuz. Zehazki, Administaritza Publikoak diseinatzen ari duen genero berdintasunerako formakuntza ibilbidearen baitan maskulinitate parekideetan formakuntza ezarriko da.

V. HEZKUNTZA

1. Kalitatezko hezkuntza unibertsal baten aldeko Geroa Bairen apustua

Autogobernuak eskola publikoa hobetzeko eskaintzen dizkigun tresnak erabiltzeko konpromiso tinkoa du Geroa Baik, eskola publikoa XXI mendeko beharrianetara egokitzeko. Helburu nagusietako bat, gaur egungo gizartearen hezkuntza-eskaerei erantzuna ematea izan behar da, bai eta 4. Iraultza Industrialak, globalizazioak, kultura aniztasunak, big datak, adimen artifizialak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek osatzen duten fenomeno konplexu sare horretara egokitzea hezkuntza sistema, gero eta handiagoa den automatizaziok egungo ogibide asko zaharkiturik utziko baititu, eta desberdintasun sozialaren areagotzea ekar dezake horrek.

Eskola publikoak aukera berdintasuna bermatu beharko du, gure ikasle guztiek berdintasunezko bizi proiektua eraikitzeko aukera eduki dezaten, klase, genero, arraza edo beste edozein motatako baldintzatzailek gabe.

2. Legegintzaldiaren balantzea

Azken legegintzaldian alorren batek miatze bizirik eduki baldin badu, hori zalantzarik gabe, hezkuntzarena izan da. Hezkuntzan aldaketaren buru egoteko eta hori kudeatzeko gobernu berriaren gaitasuna hasieratik trenkatzea bilatu zuten batzuek, eta hartutako erabaki guztiak judizializatzeko zalantzarik ez zuten izan: oposizioak, bitarteko irakasleen zerrenden eraketa, beka deialdia, Skolae hezkidetza programa...

Hala ere, Nafarroako Gobernuak gure komunitateko eskoletara aldaketa eramaten jakin du, programa akordioa ia osorik betez, eta elkarrizketaren eta ezberdinen arteko akordioen bidez egin du. Akordioetara iristeko jarrera horren adibide dira sare publikorako hezkuntza paktuak mahai sektorialeko 7 sindikatuetakoko 6ren babesa jaso izana, hitzartutako sarearentzako akordioa patronal guztiekin eta sindikatuen ordezkartzaren %86arekin edo NUPen hainbat-urtetarako finantzaketarako hitzarmena, unibertsitate komunitateak hainbeste urtez itxaron ondoren.

Hau gainera murrizketak leheneratu diren legegintzaldia izan da. Ratioak hitzartutako sarean bai eta publikoan ere behera egin du, haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan (2018/19 ikasturtea) eta bigarren hezkuntzan (2019/20 ikasturterako jada aurrekontuan jasoa) irakaskuntza zuzeneko bi eskola-ordu murriztu dira. Halaber, irakasleentzako oposizioak berreskuratu dira 1190 plazarako deialdia eginez legegintzaldian zehar haur hezkuntza eta lehen hezkuntzarako, bigarren hezkuntzarako, ikuskaritzarako eta kontserbatoriorako. Honekin batera azpiegiturretan inbertsioa egin da ere, bere aurrekontua laukoiztuz, 2015ean 5,9 milioi edukizetik 2019an 21,7 milioitara haziz.

Hauek eta beste asko izan dira autogobernuari esker posible izan diren zedarriak. Geroa Baik Nafarroako errealitateari eta bere beharriari egokiturik dagoen eskola publikoa defendatzen du, horregatik LOMCE Legearen gaitzespena berresten dugu.

Hezkuntza Departamentuak hezkuntza publikoaren alde duen konpromiso tinkoa hiru ardatz dituen hezkuntza eredu batean oinarritzen du: Berrikuntza, Inklusioa eta Berdintasuna. Konpromiso honek ekimen ugariaren garapenean eduki du bere isla, hots Aniztasunaren Arretarako Plan Estrategikoa, Lanbide Heziketarako Plan Estrategikoa, Skolae, Laguntza eskola jazarpenaren aurreko prebentzio eta esku-hartze programa, Ikasnova estrategia digitala, Zentroko Hizkuntza Planaren orokortzea eta abar.

Halaber, unibertsitate, arte edo hizkuntza eskolek eskaintzen dituzten ikasketetan hobekuntza nabarmenak burutu dira ere: NUPen formakuntza eskaintzaren gorakada, Tuterako Fernando Remacha Udala Kontserbatorioaren finantzaketarako hitzarmenaren sinatzea, Lizarran Iruñeko Hizkuntza Eskolaren unitate egonkor baten sorrera edo datorren ikasturtean Diseinurako Goi Ikasketa Artistikoen ezarpena.

3. Helburuak

Hezkuntza parekidetasunean, inklusioan eta aukera berdintasunean oinarritu behar den eskubide unibertsala da. Horretatik, Geroa Bairen aburuz sare publikoa Nafarroako hezkuntza sistemaren bizkarrezurra izan behar da.

Nafarroak Estatu mailan eskola abandonu tasarik txikienetakoa edukitzen jarraitzea nahi du Geroa Baik. Aurreko gobernuek burututako murrizketak leheneratzen jarraitzea proposatzen dugu, plantilak egonkortu, bitartekotasun tasak murriztuz, bai eta sare publikoa modernizatuz, horretarako azpiegiturretan, Teknologia Berrietan eta irakasleen etengabeko formakuntzan inbertsioa handituz.

Eleanitza den eskolaren alde egiten dugu, non hizkuntza propio eta atzerritarrek merezi eta behar duten trataera edukiko duten, hizkuntza eskola sare handitu batekin osatuz hori, eskaintza herritarrei hurbiltzeko helburuarekin.

Halaber, 0 eta 3 urte birtarteko zikloaren unibertsaltasunean eta doakotasunean aurrera egiten jarraitu nahi dugu, bai eta S3 espezializazio adimentsuaren estrategiarekin harremana duen Lanbide Heziketako formakuntza eskaintza handitzen, unibertsitate publikoaren eskaintzaren kalitatean, goi kontserbatorioaren eta kontserbatorio profesionalaren dotazioan, eta helduei zuzenduriko irakaskuntza ezberdinen koordinazioan ere.

4. Proposamenak:

HEZKIDETZA

- › Skolae programarekin hasitako lana finkatu eta orokortu, Nafarroako ikasle guztiek haien bizi proiektua berdintasunean eraikitzea ahalbidetuko dien kompetentzia eskura dezaten, Skolae-ren edukiak hezkuntza errealitate ezberdinetara egokituz eta doituaz (aniztasunak, Lanbide Heziketako familiak, landa eremuko eskolak...).
- › Zentro osoaren inplikazioa edukiko duten proiektu interesgarrietan sakondu, hala nola patioen birplanteamendua, hezkidetza liburutegiak edo emakume eta zientziari buruzko proiektuak.
- › Familiei eta gainontzeko hezkuntza-komunitateari zuzenduriko formakuntzan aurrera egin eta toki erakundeekin, Nafarroako Gobernuko beste organismoekin (NABI, NOPLOI, NKGI...) eta hezkuntza ez formalean inplikaturik dauden beste eragile sozialekin koordinazioa sustatu.

UNIBERTSITATEAK

- › *Navarre International Artificial Intelligence Centre* (NIAIC) sortu, adimen artifizialaren alor nagusien oinarritzko ikerketa transbertsala eta bikaintasunezkoa garatzeko helburu nagusiarekin, eta Europa zein mundu mailan erreferentziazko zentro bihurtu.
- › *Nafarroako Unibertsitate Sistemaren Ebaluaketa eta Kalitate Agentzia* sortu irakasleen eta ikertzaileen bikaintasuna bultzatzeko, unibertsitatearen finantzaketan egindako inbertsioaren hazkundeari lotuz.
- › Unibertsitate publikoan egun dagoen euskarazko eta ingelerazko hezkuntza eskaintza finkatu, Hainbat Urtetarako Finantzaketa Hitzarmenaren baitan egingo den finantzaketa espezifikokoaren bitartez, hizkuntza eskola ofizialekin sinergien bitartez eta unibertsitate publiko zein pribatuan hizkuntza hauen hedapen handiagoaren bitartez.
- › Ikerketa jarduerak gizarteari hurbiltzeko sakontasunez lan egin, ezagutza zientifikoa pertsona kopuru handienari eta inguru akademikoetatik kanpo helaraztea bultzatzeko deialdien bitartez.
- › Derrigorrezkoak diren ikasketen ondorengo ikasketak egiteko beken kompetentziaren transferentzia osoa eskatu.

EBALUAZIOA

- › Nafarroan estandarizatutako kanpo-ebaluazioak (Lehen Hezkuntzako 4 maila eta DBH 2 maila), Nafarroako Hezkuntza departamentuak berak proposaturik eta kudeaturik; zentroetan egingo dira, zentroek egingo dituzte eta zentroetarako izango dira, ikasle guztiei eginez, eragin akademikorik gabe, eta hezkuntza jarduerak hobetzeko tresna ezin hobea dira, Estatuko administraritzak inposatzen dituen etapa amaierako ebaluazio laginen aurrean.
- › Kanpo-ebaluazioetan konpetentzia berrien sartzea ikertu, hala nola konpetentzia sozial eta zibikoa edo arte konpetentzia, ohiko moduan ebaluatzen direnetera gehituz (hizkuntza, matematika eta zientzia)
- › Ebaluazio diagnostikoen ezarpen prozesua digitalizatu, irakasleen lan karga gutxitzeko eta bere ezarpenean objektibotasuna eta frogen zuzenketa hobetzeko.

BIZIKIDETZA

- › Laguntza programaren zentro guztien beharrizan eta erritmoetara egokitzeko prozesuan sakondu, bizikidetza hobetzeko tresna erabilgarria izaten jarrai dezan.
- › Bizikidetza Aholkularitza Ikuskaritza Zerbitzuaren baitan sartu, bizikidetzaren kudeaketan ardura duten Hezkuntza departamentuko egitura guztien koordinazioa hobetzeko, bai eta eskola jazarpenaren prebentzio eta esku-hartzean hobetzeko ere.

HEZKUNTZA BERRIKUNTZA

- › Irakasleen Etengabeko Formakuntzarako Foru Dekretu berri bat egin, formakuntza plana XXI mendeko eskolan irakasteko beharrezkoak diren konpetentziei lotuz, eta Irakasleen Formakuntzarako Nafarroako Kontseiluaren osaera eta funtzioak eguneratuz.
- › Irakasleei Laguntza emateko Zentroei zuzenduriko baliabideak handitu eta Iruñeko Iruñeko GPZ egoitza bakarrean jarri.
- › Hezkuntza publikoaren eraldaketa digitala maila, espazio, metodologia, konpetentzia, azpiegitura, konektibotasun, gailu eta irakaskuntza tresna guztietara bultzatzen jarraitu, bai eta ikasgeletan eta kudeaketan ezarri daitezkeenak ere, Gobernu, 4.0 industria eta kalitatezko zerbitzu publikoen estrategiarekin bat.
- › Zentroetako ekipazioaren hedapenarekin eta berritzearekin, eta horien mantentzearekin jarraitu, bai eta azpiegiturak osatzen ere, sare publikoko zentroen beharrizanen arabera konektibotasuna emateko, bai datu emariari dagokionez bai eta azken belaunaldiko WiFiri dagokionez ere, zentzu guztietan segurua izanik.
- › Ikasleak gizarte digitalean zeharo murgiltzea eta baliabide digitalen erabilera modu segurua eta begirunetsuan izatea bermatu.
- › Maila guztietan hezkuntza komunitatearen konpetentzia digitala bermatzeko lan egin, zentroei, irakasleei, ikasleei eta familiei zuzenduriko plan eta jarduerekin.
- › Modulu eta funtzionaltasun berrieekin EDUCA plataformaren garapena bultzatu, Hezkuntza Departamentuko informazio sistemen ardatz nagusia izan dadin.

ELEANIZTASUNA

- › Hizkuntzen alorrean kantsentsu, autonomia eta lan koordinaturako tresna izango den Zentroko Hizkuntza Proiektua egitea bultzatu hezkuntza zentroetan.
- › Hezkuntza sistema eleanitz bat lortzeko pausoak eman, ikasle guztiei Nafarroako hizkuntza propioen presentzia bermatuz, bai eta gutxienez beste bi atzerriko hizkuntzena ere.

- › Euskaren sustapenerako eta murgiltzerako hezkuntza programak zabaldu, bereziki hizkuntzak presentzia gutxiago duen eskualdeetan.
- › Atzerriko hizkuntzen ikasketa eta erabilera sustatzeko, beste herrialdeekin lankidetzan ikasle-truke programa propioak eta elkarrizketa laguntzaileak ezarri.

ANIZTASUNARI ARRETA, 0-3, LANDA EREMUKO ESKOLAK

- › 2020an amaitzen den Aniztasunari Arretarako Plan Estrategikoa berrikusi eta ebaluatu eta lau urteko iraupena (2020-2024) edukiko duen Plan bat diseinatu, hezkuntza barneratzaile bat lortzeko pausoak emateko helburuarekin eta ikasle guztientzako parekidetasun eta kalitate printzipioetan ardazturik.
- › 0-3 eskolen doakotasuna eta unibertsaltasuna lortzeko bideari jarraitu, eta inplikaturiko eragileen koordinazioan aurrera egin, horretarako Nafarroako Gobernuako departamentuak eta toki erakundeak barnean edukiko dituen partzuergo bat sortuz.
- › Landa eremuko eskolak sustatzeko departamentuen arteko koordinazioa sendotu (Hezkuntza, Garapen Ekonomikoa, Landa Garapena, Toki Administrazioa), landa eremuetan herritarrak finkatzeko eta lurraldea ardazteko funtsezko tresnak baitira landa eremuko eskolak.
- › Departamentuen arteko organo bat sortu helduentzako hezkuntza, bai formala bai eta ez formala ere, egituratu eta koordinatzeko (prestakuntza profesionalak, alfabetatzea, gaztelera bigarren hizkuntza moduan, euskal hizkuntza, beste hizkuntzak, informatika...).

HEZKUNTZA AZPIEGITURETAN ETA GARRAIOAN INBERTSIOAK

- › Zentro publiko berriak eraikitzeko eta jada daudenak modernizatzeko ere inbertsioaren hazkundearekin jarraitu, energia kontsumoa murrizteko Passivhaus estandarra jarraituz.
- › Pleguen lantzean hezkuntza komunitatearen partaidetzan sakondu, espazioak zentroko hezkuntza proiektuari egokitzea ahalbidetuz.
- › Batxilergoan ere eskola garraioa finantzatu, landa eremu eta udalerrietatik mugitu behar duten ikasle guztiei zerbitzua bermatzeko, 18 urte arte.

LANBIDE HEZIKETA

- › Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoaren ezarpenarekin jarraitu, Nafarroako biztanleria aktiboari Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiari loturiko kalitatezko enpleguak lortzea errazteko, komunitateko bi hizkuntzetan emango den hezkuntza eskaintzaren bitartez eta foru komunitateko eskualde ezberdinetako garapen ekonomikoari modu sendoan loturik.
- › Ikasketa eta formakuntza ziklo jakinetan genero joerarekin hausteko, etapa goiztiarretan ematen den aukeraketari buruzko informazioa eta orientazioa sendotu.
- › Giza Baliabideetan eta zentroetako ekipamenduaren modernizazioan inbertitzen jarraitu, bai eta metodologia aktiboetan sakontzeko irakasleen formakuntzan ere, eta Lanbide Heziketan ere.
- › Seguir invirtiendo en Recursos Humanos y en la modernización del equipamiento de los centros, así como en la formación de profesorado para ahondar en las metodologías activas, también en FP.

GIZA BALIABIDEAK

- › Deialdien kudeaketa errazteko baliabide informatikoen ezarpena guztiz amaitu, aurkezten direnei deialdi berri bakoitzerako haien merituen egiaztagiria berrituz aurkezteko karga ekidinez.
- › 47/2010 Foru Dekretua aldatzeko prozesua amaitu, Nafarroako hezkuntza zentro publikoetako langileek, irakasle edo ez, pairatzen dituzten kanpo-erasoei modu bizkor eta eraginkorren konponbidea ematea ahalbidetuko duten neurriak hartzeko helburuarekin.
- › Legegintzaldi honetan onartu diren LEPak deitu eta Lan Eskaintza Publiko berriak onartu, honako plazarak, besteak beste, kontuan hartuz: Maisuen Kidegoa (Haur eta Lehen Hezkuntzako espezialitateetan bereziki), Hezkuntza Inspektoreen Kidegoa, Musika eta Eszena Arteetako Irakasleen Kidegoa (Kontserbatorio Profesionalerako) eta Musika eta Eszena Arteetako Katedradunen Kidegoa (Goi Kontserbatoriorako). Horrela, 2021 urtea baino lehen irakasleen artean dagoen bitartekotasuna %8 baino gutxiagora murrizteko helburua beteko dugu.
- › Irakaskuntzaren Funtzio Publikora sartzea arautzen duen abenduaren 27ko 17/2017 Foru Legea bertan behera utzi, zerrenda bakarreko sistemaren ezarpena ahalbidetuz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beste alorretan erabiltzen denaren antzekoa, unibertsitatekoa ez den irakaskuntza langileen sarrera eta aldi baterako kontratazioak egiteko.
- › Legegintzaldi honetako azken tartean jada hasi zen Foru Dekretuaren lantze prozesua amaitu, unibertsitatekoak ez diren irakaskuntza langileek izenpetutako kontratuak ikasturtez ikasturte berrituz ahalbidetuko baitu, beti ere horretarako beharra dagoenean, gaur egun urtero abuztuaren 31an gertatzen den kontratuaren desegitea kenduz.

VI. HIZKUNTZA POLITIKA

1. Analisia

Gure Foru Komunitateak bi hizkuntza propio ditu, euskara eta gaztelera, eta Nafarroako herritar orok du biak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Nafarroako errealitate soziolinguistikoa konplexua da, gaztelaren ezagutza eta erabilera bermaturik dagoen bitartean ez baita gauza bera gertatu euskararekin, bere ezagutza oso ezberdina izanik azken hamarkadetan eduki duen bazterkeria egoeraren ondorioz, nahiz eta egoera hori leheneratzen hasi den Nafarroako gizartearen sektore zabalen konpromisoari esker: eskola publikoan euskararen irakaskuntza hedatzeko guraso eta profesionalen inplikazioa, helduak izanik euskara ikasi zuten pertsona guztiak, euskarazko komunikabideen sorrera eta euskararen erabilera sozialari bultzada konpromiso horren froga dira.

1990ko hamarkadan Nafarroako gizartearen konpromiso hau administratza publikoek bultzaturiko sustapen neurriekin osatu zen, bai Nafarroako Gobernuarenak bai eta tokiko erakundeetatik zetozenak ere. Hezkuntzan euskaraz ikastea bermatzeko bideratuak, bai eta komunikabideetan, bitzta sozialean eta aisialdian euskararen presentzia sustatzeko ere. Neurri hauek euskararen egoera hobetzeko aurrerapauso nabarmena izan ziren, baina ez ziren nahikoa herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, Nafarroak Euskararen Foru Legean ezarritako hizkuntza zonifikazioa kontuan hartuz ezartzen baitziren. Zonifikazioa eskubideak murrizteko erabili zen eta ez Komunitatearen errealitate soziolinguistikoarekin egokiak ziren sustapen hizkuntza politikak Nafarroa osoan modu mailakatuan ezartzeko irizpide moduan.

Baina Nafarroako Gobernuak UPNrekin 2015eko aldaketara arte ezarritako hizkuntza politikak abandonu eta konfrontazio estrategia bat jarri zuen martxan, hiru ardatzetan oinarrituz:

- › Euskal hiztunen hizkuntza eskubideen ukapena: Euskararen Legean administratza publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen duen arren, ia ez zegoen euskara baldintza moduan zuen plazarik, 2015ean %0,7 zehazki. Honek praktikan euskararen erabilpena galarazten zuen.
- › Hezkuntza sisteman bere ikasketa eragotzi, eremu ez euskaldunean euskaraz ikasteko aukera 2015 urtean legea aldatu zen arte ez baitzegoen. Helduen euskalduntzerako laguntza guztiak bertan behera utzi ziren ere.
- › Eskubideak bermatzeko eta euskara sustatzeko aurrerapausoak ematen zituzten aurrekontuetako kopuru ia guztien deuseztatzea, euskararen erabilera soziala oztopatzeko helburuarekin.

2015ean Geroa Baik politika baztertzailer horiek sortutako egoera leheneratzeko ardura hartu zuen nafar jendartearen aurrean, horretarako hiru funtsezko printzipio hartuz erreferente moduan:

- › Transbertsaltasuna administratza publikoen jardura guztia hartuko duen lan ardatz moduan.
- › Bizikidetzatza Nafarroak gizarte geroz eta irekiagoa eta pluralagoa lortzeko lanean jarraitzeko konpromisotik, nortasun ezberdinak errespetatuz. Eta bizikidetzatza erreal batean aurrera egin ahal izateko beharrezkoa da herritar guztien hizkuntza eskubideekiko errespetua bermatzea, Nafarroako bi hizkuntzetako edozeinetan adierazteko askatasuna bermatuz.
- › Partaidetzatza administratza ezarri behar dituzten politikek arrakasta izan dezaten eta iraunkorrak izan daitezen. Horretarako beharrezkoa da herritarrak eta eragile sozialak hizkuntza normalizazioari dagozkion eta eragiten dieten erabakien hartzean egotea.

Nafarroako Gobernurako Programa Akordioak hizkuntza politiko berri bat planteatu zuen, ekintzarako ardatz nagusien definizioan Geroa Baik definituriko ildoak erreferentzia moduan hartuz:

- › Nafarroako herritar guztiei hizkuntza eskubide berberak bermatu
- › Euskararen aldeko neurri positiboen sustapena
- › Hizkuntza minorizatu edo eskualde mailako hizkuntzen Europako Karkak jasotzen dituen neurriekin bat datorren hizkuntza politika
- › Aplikatu beharreko programak bermearekin garatu ahal izateko baliabide nahikoak emateko konpromisoa
- › Pertsonak administrarritza publikoekin eta haien bizitza sozialetan erabili nahi duten hizkuntza aukeratzeko askatasunarekin begirunetsua.

Hala ere ezin ahaztu daiteke aurkako jarrerak badirela: euskararen inposaketari buruz hitz egiten duen diskurtso bat jaioa da eta, argudio faltan, euskarafobia sustatzeari ekin dio hausnarketa gutxiko erreakzioak bilatuz, herritarrei euskaraz hitz egiten ez badute lanik ez dutela aurkituko esanez beldurra eraginez edo euskaraz ez dakiena nafar okerragoa dela edo zerbait falta duela esanez.

Datuek hala ere aurkakoa frogatzen dute: Nafarroako herritar elebidunak %9,1 ziren 1991an eta %12,9 2016an, eta elebidun pasiboak %10,3 dira 2016an. 16 eta 24 urte bitarteko herritarren artean gorakada nabariagoa da, 1991an %10 izatetik %25,8 izatera pasa baitira 2016an. Baina egoera honek ez du isladarik izan foru administrarritzan, 2015ean lanpostuen %1 baino gutxiagok baitzuten euskara baldintza moduan. Datu hauek frogatzen dutenez, bazterturik zeuden pertsonak ziren euskara erabiltzeko haien eskubidea jardun nahi zutenak.

Datozen urteetako erronka nagusietako bat, Nafarroako bi hizkuntzen arteko harremana aniztasunarekiko errespetutik bizitzeko akordioak egitea ahalbidetuko duen oinarria finkatzea da, modu horretan bizikidetzatik abiatuz aurrera egiteko eta gatazkan atzean ez geratzeko.

Baina aurrera egin ahal izateko ezin ahaztu daiteke gatazka egoerei irtenbidea emateko aukeratzeko unean boluntariorotasunari errespetuan eraikitako adostasunak behar direla, bai eta euskararen sustapena ere. Honi dagokionez gogoratu beharra dago eskualde mailako hizkuntzen eta hizkuntza gutxituen Europako Kartak honi buruz dioena: eskualde mailako hizkuntzen edo hizkuntza gutxituen aldeko neurri berezien hartzea, hiztunen arteko berdintasuna sustatzeko helburuarekin, ez da hizkuntza hedatuenean hiztunen bazterkeria jarduera moduan hartuko.

2. Legegintzaldiaren balantzea

Geroa Baik bultzatutako aldatetaren lehen legegintzaldiaren lau urteetan garatutako lanak konpromiso hori kontuan izan du eta Programa Akordioak jasotzen dituen puntuak betetzean zehaztu da, honako neurriak ahalbidetuz, besteak beste:

- › Euskararen Lehen Plan Estrategikoaren onarpena, horretarako ekimen sozialeko erakundeen eta herritarren partaidetza edukiz. Herritarrek euskara ikasteko eskubidea eta administrarritza publikoekin dituzten harremanetan, aisialdian, kulturean, edo komunikabideetan euskara erabiltzeko eskubidea bermatuko duen hizkuntza politika garatzeko ardatz estrategikoak definitzen ditu Plan honek.
- › Aurreko legegintzaldian UPNk egindako murrizketak leheneratu eta erakunde sozialei baliabide ekonomiko gehiago eman, herritarrei ematen dieten euskarazko eskaintza hobetzeko aukera emanez. Aurrekontua 2.100.000 eurotik 7.300.000 euroraino hazi da.
- › Euskararen presentzia ekitaldi publikoetan, Gobernuaren irudi korporatiboan eta informazio kanpainetan bermatu.

- › Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko arau marko egokia garatu. Euskararen Foru Lege berri bat onartzeko adostasun faltaren aurrean, administrarritza publikoetan euskararen erabilerari buruzko Foru Dekretu berriaren onarpenak administrarritzan ekintza planak martxan jartzea ahalbidetu du, bai eta herritarrei arreta ematea bermatzeko euskara ezagutzea zein lanpostutan den beharrezkoa finkatu eta Nafarroa osoan Funtzio Publikora sartzeko deialdietan euskara meritu moduan baloratzea.
- › Euskararen Nafar Kontseilua berri, ekimen sozialeko erakundeei irekiz.
- › Herritarrak euskaraz espazio berrietan sartzeko aukera, alor sozioekonomikoan adibidez, edo mundu digitalean euskararen presentzi bultzatu.
- › Euskararen erabilera soziala aktibatzeke bideraturik dauden eragile sozialek bultzaturiko proiektuetan parte hartu, hots Euskaraldia.
- › Euskarazko komunikabideak eskuratzea bermatzeko konpromisoa bete da, adibidez ETB lurraldeko zati handi batean ikusteko aukera, edo Euskalerria Irratiari euskarazko irratitari emititzeko lizentziaren behin betiko ematea.
- › Nafarroako Gobernuaren, Iparraldeko Euskararen Bulego Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzan pauso garrantzitsuak eman dira, euskararen promoziorako lankidetz hitzarmen bat sinatuz lehen aldiz.
- › Hizkuntza propioa duten Komunitate Autonomoekin eta Europa mailako organismoekin lankidetz areagotu da ere.

3. Proposamenak

Berdintasunarekin eta boluntariotasunarekin begirunetsua den hizkuntza politika baten helburu nagusiak Nafarroako herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatu behar ditu eta bere garapenak legegintzaldiaren lau urteko ziklotik haratago doan gobernu ekintza behar du. Horregatik, datozen lau urteetan garatu beharreko lanak orain arte garatutako ildo estrategikoen jarraipena behar du, bere edukian sakonduz eta ondorengo legegintzaldietarako oinarriak ezarriz. Nafarroako aniztasunarekin begirunetsua eta Nafarroako errealitate soziolinguistikoarekin egokia izango den hizkuntza politika bat ahalbidetuko duten adostasunak bilatzen jarraitzea da Geroa Bairen konpromisoa. Eta hori guztia ondoko ardatz estrategikoetan zehaztuko da:

- › Administrarritza publikoetan Nafarroako bi hizkuntza propioetako edozein aukeratzeko herritarren eskubidea bermatu.
- › Horrela aukeratzen duen orok euskarazko irakaskuntza eskuratzea eta euskara bera ere eskuratzea bermatu.
- › Bizitza sozialean euskararen erabilera sustatuko duten neurriak hartu.
- › Oinarrizko akordioekin marko bat eraiki, euskararen sustapena eta boluntariotasun printzipioa abiapuntu moduan hartuz, topaketa gunean ahalbidetzeko.

Datzen urteetan burutu beharreko ekimenei ondoko neurriak martxan jartzea edukiko dute helburu moduan:

- › Herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko dituen Foru Lege berri bat onartu, irizpide murriztailea duen zonifikazioa gaindituz.
- › Bere seme-alabentzako euskara aukeratzen duten familiei euskarazko hezkuntza eskuratzeko baldintzak hobetu.
- › Euskarazko eskaintza hezkuntza maila guztietan zabaltzeko, bai eta formakuntza jarduerak osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan.

- › Lan eta hezkuntza alor ezberdinetan euskaraz lan egiteko etorkizuneko profesionalak prestatuko dituzten euskarazko unibertsitate gradu eta graduondokoen eskaintza handitu.
- › Ikasleen artean euskararen erabilera sendotzeko programak garatu, formalak ez diren komunikazio erregistroetan.
- › Euskararen 2. Plan Estrategikoa egin, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren ezarpenerako funtsezko tresna moduan, 2020 urtean indarrean sartzeko helburuarekin.
- › Hizkuntzen arteko harremanetan orokorrean, eta euskararen kasuan bereziki, aurrera egiteko adostasunak eraikitzen jarraitu, balore positibo eta barneratzaileekin.
- › Nafarroako Foru Komunitateak hala nahi duen edozein herritarri euskaraz arreta ematea bermatzeko planak ezarri. Garatu beharreko neurriak lehentasunezkoak izango dira euskal hiztun portzentaje handia duten toki erakundeetako herritarrei arreta ematen dieten zerbitzu publikoetan.
- › Administraritzaren zerbitzura dauden langileen euskarazko formakuntza modu egokian planifikatu, herritarrei ematen zaien arreta hobetzeko helburuarekin.
- › Nafarroan Estatuko Administrazioak herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatzeko pausoak eman, bereziki Justizia edo NAN bezalako dokumentu ofizialen ematean.
- › Helduentzako euskararen irakaskuntzaren eskaintzak berdintasunean eskuratzeko erantzun egokia ematea bermatu, bere doakotasuna bermatuko duten pausoak eman.
- › Administrazio publikoetako lanpostuak lortzeko euskararen ezagutzaren akreditazio sistema bat ezarri, euskara hitz egiten den lurralde guztietan homologatu.
- › Euskarazko komunikabideei ematen zaizkien diru-laguntza sistema egokitu, haien egonkortasuna eta bideragarritasuna bermatuko dituen erantzuna eman, komunikabide hauen erabilera sustatuz eta formatu berrietan presentzia edukitzea sustatuz, gazteei zuzendurik bereziki.
- › Gaztelerazko komunikabideetan euskaraz ematen den informazioa handitzeko ekintza ildoak garatu.
- › Esparru sozioekonomikoan euskararen presentzia handitu, merkataritzan eta zerbitzuetan bereziki.
- › Inguru digitalean eta sare sozialetan euskararen erabilerarako aukerak handitu.
- › Euskararen Nafar Kontseiluan euskararen eta bere erabileraren sustapenean lan egiten duten eragile sozialekin lankidetzan aurrera egin.
- › Herritarrek tokiko erakundeekin dituzten harremanetan euskara erabiltzeko aukera bermatu. Udal esparruan hizkuntza eskubideak bermatzeko aukera emango du tokiko mapa berriak.
- › Euskararen lurraldeetako erakunde publikoekin hasitako lankidetzan jarraitu, Euroeskualdearen baitan eta Europako programen partaidetzara irekirik.
- › Eraginkortasun eta proportzionaltasun irizpideak kontuan edukiko dituen hizkuntza politika bat garatu ahal izateko administrazio publikoei beharrezko baliabideak eman.

VII. OSASUNGINTZA

Geroa Baik pertsonen osasunean eragin positiboa izango dituzten neurriak ezartzeko ekimenak bultzatuko ditu erabaki esparru guztietan eta ekintza politikoko maila guztietan. Ekimen horiek politika sektorialen agendan osasun parekidetasuna sartzeko bideraturik egongo dira. Horretarako gizarte zibileko beste eragileen partaidetza bultzatuko du.

Horretarako beharrezkoa da Osasun Departamentuarterko Kontseilua bultzatzen jarraitzea, 2016an sortua osasungintza politika publiko guztietan integratzeko Nafarroako Gobernuako departamentu ezberdinen arteko elkarlana, lankidetzeta eta koordinazioa sendotzeko helburuarekin.

Geroa Baik Osasungintzaren Foru Legearen Proiektuaren idazketa amaituko du eta legea bera onartuko du ere.

Osasun sistema publikoaren jasangarritasunak zerbitzuaren kalitatea mantentzea ahalbidetuko duen baliabideen kudeaketa eraginkor bat behar du.

Proposamenak

1. Lehen Arreta eta Ospitaletik kanpoko arreta

- › Lehen Arretarako Estrategia martxan jarri, ondokoak kontuan hartuz:
 1. Lehen arretarako ekipoek oinarrizko zona bakoitzean eskaintzen dituzten zerbitzuen kartera sendotu
 2. Eskualdeen arteko parekidetasuna hobetu, herritarrak landa eremuetan finkatzeko zerbitzuak deszentralizatuz.
 3. Finantzaketa egokia. Aurrekontua modu nabarmenean handitzen jarraitu, zentroetan giza baliabide eta baliabide tekniko nahikoak ezarri.
 4. Langileria plantilla sendotu eta ordezkapen egokiak bermatu.
 5. Osasun Txartel Indibidualen kopurua egokitu, zahartzea, barreiatze geografikoa, kronikotasuna, immigrazioa bezalako alderdi ekonomikoak eta sozialak eta beste irizpide batzuk kontuan hartuz kupoak berrantolatuz.
 6. Lehen arretako erizaintzaren konpetentziak eta ardurak bultzatu, profil ezberdinen definizioarekin.
 7. Oinarrizko Osasun Zonetan gizarte langileak jartzen jarraitu, lan soziosanitarioa sendotzeko.
 8. Etengabeko Arreta eta Larrialdiko Arretaren Erreforma Plana. Eskualdeetako larrialdietarako zerbitzuen garapena
 9. Lehen Arretako profesionalen eta bigarren arreta mailaren arteko koordinazioa eta komunikazioa erraztu, gaixoen beharrei erantzun azkarra eman ahal izateko.
 10. Sendagaiaren erabilera arrazionala bultzatzen jarraitu.
 11. Haur guztiek haien Oinarrizko Osasun Zonan pediatrian espezialista bat edukitzea bermatu.
 12. Etxez-etxeko arreta soziosanitariorako programa hedatu, ospitaleratzeen eta egoitza zentroratzeen prebentziorako eta etxean egotea mesedetu.

13. Hauskortasunaren detekzio goiztiarrerako eta errehabilitazio funtzionalerako programak hedatu, fisioterapia eta etxean egiteko errehabilitazioa deszentralizatuz
- › Lehen arretarako azpiegitura plan bat bultzatu, besteak beste ondoko osasun etxeak barne hartuz: Zizur 2, Erripagaina, Lezkairu, Atarrabia, Zarrakaztelu, Tuterako Santa Ana, Tuterako Gayarre edo Lodosako 2 Fasea.
 - › Osasun Garraioaren internalizazioa eta Osasunbideko osasun larrialdien zerbitzua integratu.

2. Bigarren mailako arreta edo ospitaleko arreta

ITXAROTE ZERRENDAK

- › **Eskaeraren arabera ekintzak sendotu, “balio emate” kontzeptuan oinarrituz.**
 1. Deribazio tasa egokiak sustatu, desbideraketetan jardunez.
 2. Lehen Arretan konponbide emateko gaitasuna handitzeko laguntza
 3. Ohikoenak diren prozesuetako gaixoen segimendurako Lehen Arretarekin pautak adostu.
- › **Jardueraren gaineko ekintzak sendotu:**
 1. Lehen Arretarekin koordinazioa hobetu. Lehen arretako edo arreta espezializatuko profesionalekin aldizkako bilerak.
 2. Barne medikuntzan eta geriatrian distrituko erreferentziazko espezialista.
 3. Bide klinikoak adosteko eta proba osagarriak eskatzeko protokoloak, zuzenak ez diren deribazioak eta erabilera klinikorik gabeko berrikusketak ekiditeko
 4. Presentzialak ez diren kontsultak ezartzen jarraitu
 5. Baliabide materialen optimizazioarekin jarraitu: ebakuntza-gelak, endoskopiak, irudi probak.
 6. Ebazpen handiko eta diagnostiko azkarreko zirkuitoak garatu.

GIZA BALIABIDEAK

- › Profesional tasa handien mantentzea bermatu
- › Profesionalen arteko bai eta hauen eta zuzendaritzaren arteko komunikazio kanaletan aurrera egin
- › Erreferentziazko medikuntza eta erizaintza profesionalaren figura sortu

BALIABIDE MATERIALAK

- › Teknologia berri inbertsioetarako eta Nafarroako Ospitale Guneko eta Lizarra eta Tuterako areetako azpiegituren hobekuntzarako zuzendurik dagoen partida handitu.
- › Inbertsioen Plan Zuzendaria landu eta martxan jarri, honakoak kontuan hartuz:
 1. Bi egun baino gehiagoko egonaldia duten gaixoen %50rentzako banakako geletan ospitaleratzea.
 2. Nafarroako Ospitale Guneko Ospitale Larrialdietako arearen handitzea
 3. Laborategiaren berregituraketa (Luna proiektua)
 4. Hemodialisia Tuteran
 5. Positroi-igorpenaren bidezko Tomografi PET baten instalazioa, ebakuntza gela hibridoa, Da Vinci motako ebakuntza gela robotiko bat eta bigarren angiografo bat Nafarroako Ospitale Gunerako.

BESTE NEURRIAK

- › Etxeko ospitaleratzeari bultzada, eguneko ospitaleak eta osasun etxeetan ebakuntza nagusiak egiteko aukera.
- › Ospitale barruan paliatiboentzako unitateak martxan jarri eta ospitale barruko Elikadura unitatea sendotu.
- › Kontingentzia plan bereziak egituratu: negukoa (gripea), larrialdi biologikoak, biktima ugaridun gertakariak eta abar.
- › Diziplina anitzeko unitateen eta klinika alorren sendotzea.

3. Osasun Publikoa eta Prebentzioa

- › 2017-2022 Nafarroako Zahartze Aktibo eta Osasungarrirako Estrategiaren Ekintza Plana garatzen jarraitu
- › Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia sendotu.
- › Haur zein helduen loditasunaren aurkako programak
- › Beroketa globalarekin harremana duten prebentzio ekimenak garatu eta egokitu.
- › Osasun eskolak bultzatzen jarraitu
- › Nafarroa komunitate kardio-babestua bihurtuko duen Plan integrala.
- › Osasun publikoaren ikuspuntutik laneko istripuak murrizteko eta gaixotasun profesionalen prebentziorako lan-osasun politikak sendotu.
- › Nafarroako adikzioen III Plana garatu, gazte eta nerabeengan arreta berezia jarriz sustantzien kontsumoa dela eta (alkohola, tabakoa, kalamua...) eta apustuak direla eta ere.
- › Ludopatiaren aurkako borrokarako Foru Plan espezifikoa.
- › Tabakoaren desohikotzea zinen lortzeko neurriak bultzatzen jarraitu.

4. Sexu eta ugalketa osasuna

- › Sexu eta ugalketa alorrean lehen arretaren papera sendotu
- › SeUOAZ-en zerbitzuen kartera garatu, sexu eta ugalketa hezkuntzaren rola sendotuz.
- › Sexu eta Ugalketa Dekretuan aurreikusten dena bere osotasunean garatu.
- › Genero indarkeriaren eta sexu-transmisioko gaixotasunen detekziorako eta esku-hartzerako protokoloak sendotu eta bultzatu.
- › Gazteentzako zerbitzu espezifiko berriak garatu.
- › Transexualitatearen diziplina anitzeko unitatea bultzatu (Transbide).

5. Bizitza amaierako arreta

- › Pertsona guztiei zaintza paliatiboak eta bizitzaren amaieran arreta integrala bermatu
- › Nafarroako Ospitale Gunean zaintza paliatiboan ospitale barruko unitate bat sortu.
- › Zaintza paliatiboak behar dituzten gaixoentzako etxez etxeko arreta sendotu.
- › Aurretiazko Borondateen Dokumentuaren ezagutza eta betetzea eta Heriotza Duinaren Behatokia.
- › Dolu prozesuetan laguntzeko osasungintzako langileen formakuntza sendotu eta minbiziak jotako pertsonentzako eta euren familientzako arreta psikologikoa sustatu.
- › Eutanasia despenalizatzeko Gorte Orokorretara eramateko lege ekimenak sustatu.

6. Ikerketa, irakaskuntza eta ezagutzaren kudeaketa

- › NUPEkin batera osasungintza ikerketa publikoa bultzatu.
- › NOII (IDISNA) Ikerketarako eta Berrikuntzarako Institutu moduan finkatu, formakuntzan eta ikerketan aliantza eta sinergia sortzaile baita.
- › NUPen Medikuntza Graduan martxan jarri eta osasungintza alorrean graduondoko ikasketei bultzada.
- › Nafarroan minbiziaren, gaixotasun arraroen eta zahartzearen gaineko ikerketa sendotu.
- › Medikuntza pertsonalizatu eta doitasunezkoaren estrategia egin eta martxan jarri.

7. Buruko osasuna

- › 2019-2023 Buruko Osasunaren III Plan Estrategikoa garatu eta martxan jarri.
- › Lehen gertaera psikotikoentzako esku-hartze goiztiarrerako programa Tuterara eta Lizarrara hedatu.
- › Nafarroako jokaera suiziden aurrean ekiteko eta prebentziorako Plana berrikusi eta eguneratu.
- › Buruko osasuneko zerbitzu berrien internalizazioa eta martxan jartzea.
- › Haur eta Gazteentzako Buruko Osasun Arreta Eredua Lizarran ezarri.
- › Buruko osasuneko zerbitzu soziosanitarioen sarea sendotu.

8. Giza baliabideak eta langileriaren kudeaketarako politikak

- › Profesionalen partaidetzarako eta inplikaziorako estrategia espezifikoa landu.
- › Osasungintza zetroetako kudeatzaileen profesionalizazioaren aldeko apustua.
- › Nahitaez ekonomikoak izan behar ez duten sustagarriek ezarpena.
- › Auto hitzartzea, langabezia dagoen profesionalik ez dagoela eta zerbitzuaren errendimendu egokia dagoela frogatzean egingo dela bermatu.
- › Egoera bakoitzean kalitatea hondatu gabe onar daitekeen ordezkapen portzentajea zorrotzasunez eta ekipoekin adosturik ezarri.
- › Lanbide soziosanitarioen sendotzea.
- › Enplegu publiko egonkorraren aldeko apustua egiten jarraitu, Lan Eskaintza Publikoen bitartez baimendutako plaza kopururako deialdia eginez.

9. Bestelako ekimenak

- › Jaioberrien Baheketa Zabaldurako programa bat ezarri (orpoaren proba)
- › Herritarren Gaitzearen Programa martxan jarri Berebiziko Larrialdiaren aurrean.
- › Sistemaren desmedikalizazioa sustatu eta soziosanitarioan arreta jarri.
- › Osasun politikak eta esku-hartzeak sozialekin koordinatu. Bereziki kronikotasunari eta menpekotasunari dagokienez.
- › Gaixo kroniko eta patologia anitzekoaren kontrolerako arreta berezia eta baliabide egokiak.
- › Ospitaleko podologoaren figura ezarri.

10. Herri partaidetza

- › Nafarroako Osasun Kontseiluaren funtzioak berrikusi eta tokiko kontseiluen presentzia eta jarduera oinarritzko osasun areetan bultzatu.
- › Oinarritzko osasun gune mailan beste partaidetza modalitateak sortu. Tokiko mailan esku-hartze komunitariorako politikak sustatzeko osasun soziosanitarioaren kontseiluak sortu.
- › Gaixoen elkarteekin etengabeko harremana: Gaixoen elkarten ordezkariak iraunkorra izango duen organo bat sortu.
- › Osasun karpeta pertsonala aditzera eman eta bultzatu.

VIII. BAKEA ETA BIZIKIDETZA

Bakearen, bizikidetzaren eta Giza Eskubideen aldeko Geroa Bairen apustua

Bizikidetzaren alde egindako lana Nafarroako Gobernuaren ekintzaren zutabeetako bat izan da 2015 - 2019 legegintzaldian. Lehen aldiz Nafarroako Gobernu batek oroimenaren eta biktimen politika publikoak egiteko gobernu egitura sortu du: Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte garaikideak historiaren ispiluan begiratu beharra dute, bere iraganari eta egin diren Giza eskubideen urraketari begirada proiektatzeko, indarkeria gaitzesteko, biktimei arretea emateko eta oroimena berreskuratu eta sustatzeko, gertakari horiek berriro gerta daitezzen ekiditeko. Hori zen eta izaten jarraitzen du Geroa Baik alor honetan duen jarrera eta hau izan da Geroa Baik bizikidetzaren alde azken lau urteetan egin duen lana.

Lehen aldiz, oroimen historikoaren biktimek euren Gobernuaren erantzuna jasotzeko eskubidea eduki dute, aurreko Gobernuek ukatu zieten eta hamarkadak itxaroten zeramatzatzen erantzuna. Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen alorraren barruan, Biktimei Arretea emateko Bulegoa sortu zen, terrorismoaren eta motibazio politikoko indarkeriaren biktimei arretea emateko Nafarroako Gobernu batek lehen aldiz egindako egitura. 2015 urtera arte terrorismoaren biktimak Delituaren Biktimei Arretarako Bulegora jo behar zuten. Eta lehen aldiz Nafarroako Gobernu batek, zailtasunak egon arren, eskuin muturreko taldeen eta polizia abusuen biktimen arretarako eta entzuterako politikak garatu ditu. Benetako demokrazia batean, Giza Eskubideekin eta biktimen eskubideekin begirunetsua den batean, biktima bakar bat ere ezin da arretarik gabe geratu, eta hori izan da Oroimen historikoan eta hurbileko oroimenean urte hauetan egindako lanaren abiapuntua.

Uxue Barkos Nafarroako Gobernuko Lehendakaria buru eduki dituen ekitaldi instituzionalen bidezko biktimen aitorpena eta ordaina; biktimen eta euren senitartekoen oroimenaren berreskurapena; bake eta indarkeria ezaren baloreak etorkizuneko belaunaldiei hezkuntza programen bitartez irakatsi; biktimei arretea integrala; iraganaren analisi kritikoa eta etikoa; kulturartekotasunaren pluraltasun eta aniztasunaren sustapena; eta azken finean, bizikidetzeta baketsu, zuzen eta demokratiko baten aldeko lana izan da azken legegintzaldi honetan bake eta bizikidetzeta politiken helburu nekaezina. Eta urte hauetan Nafarroa politika hauetako askoren erreferente bihurtu da Estatuan. Baina bake, bizikidetzeta, errespetua, askatasuna eta demokraziaren aldeko lana etengabea da eta etorkizuneko gobernuetan bultzada berria ematen jarraitu beharra dago helburu horiek lortu nahi baditugu.

Helburuak

1. Giza Eskubideekiko bake eta errespetu kultura sustatu.
2. Oroimen Integrala jarduteko beharrean sakondu.
3. Indarkeriari zilegitasuna kentzen jarraitu, inoiz ezin baita izan ezeren erantzun.
4. Bizikidetzeta baketsu, zuzen eta etikoan sakondu.
5. Nafarroak gizarte demokratiko moduan oroimena jarduteko duen betebeharrari erantzuteko eta biktimek egia, justizia eta ordaina edukitzeko duten eskubidea bermatzeko politikak bultzatu

Proposamenak

1. ARAU ETA ERAKUNDE ALORREN GARAPENA

- › Bizikidetzeta, Oroimen eta Giza Eskubideen Plan Estrategiko bat garatu, ahalik eta adostasun handiena lortuz eta alor honetan jarraitu beharreko ildo estrategikoak jarritz.
- › Nafarroako Parlamentuan amankomuneko zoru etiko elkarbanatua ezarriko duen dokumentu bat bultzatu, oroimen eta biktimen alorrean Nafarroako Foru Komunitateko Erakundeek lantzeko oinarri moduan balioko duena.
- › Oroimenaren Nafarroako Institutuaren proiektua Rozalejoko Markesaren Jauregiaren eraikinean ezartzea bultzatu.

2. OROIMEN HISTORIKOA

- › Nafarroako Gobernuaren Hobitik-ateratzeen Plana bultzatzen jarraitu, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta desagerturiko pertsonak lokalizatzeko, berreskuratzeko eta identifikatzeko, oraindik ez baita gorpu asko haien senitartekoei emateko aukerarik egon.
- › Gobernuak 2016an sortutako DNA Bankua bultzatzen jarraitu

3. TERRORISMOAREN BIKTIMAK

- › Terrorismoaren Biktimen Foru Lege berri bat bultzatu, bi helburureki
 1. Nafarroako terrorismoaren biktima guztiei kalte-ordaina eman. Terrorismoaren biktima askok ez dute kalte-ordainik jaso, eskubidea eduki arren 9/2010 Foru Legeak 2012ko abenduaren 31ra arteko gehienezko epea ezarri zuelako. Biktima asko kanpo geratu ziren.
 2. Terrorismoaren biktimen oroimenaren aldeko lana Foru Lege berri horretan sartu.

4. ESKUIN MUTURREKO INDARKERIAREN ETA INDARKERIA INSTITUZIONALAREN ABUSU EGOEREN BIKTIMAK

- › Inpunitate eremuak ekidingo dituen eskuin muturreko eta polizia indarren biktimen aitortpenerako Foru Legea garatu eta bultzatu.

5. OROIMEN HURBILA

- › Iraganaren berrikusketa kritikoa ahalbidetzeko prozesuak mesedetu. Biktimen funtsezko eskubideetako bat, bidegabekeriaren aitortpenean oinarritutako ordain morala da, eragin zitzaie minaren aitortpena alegia. Urraketei egindako alde anitzeko begirada kritikoa biktimentzako laguntza handikoa da dolua lantzeko, biktimizazio prozesua gainditzeko eta pairamenean ainguratuta ez geratzeko, eta horretaz gain, gizarteari laguntzen dio ere bizikidetzarako irizpide etikoak finkatzen.
- › Indarkeria terroristaren ondorioen errelato ez baztertzaila bat eraikitzen jarraitu. Hau entzute irekitik eta testigantzen jasotzetik izango da bakarrik posible.

IX. GARAPEN EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA

Aldaketaren Gobernuaren politika ekonomikoaren helburu nagusia, politika publikoak garatzeko beharrezko baliabideak ematea izan da, UPNren aurreko alditik jasotako kontu kaxkarrei buelta emanez. Horrela, zerga politika zorrotza eta parekideagoa burutu da, zorraren baldintza finantzarioak eta amortizazio baldintzak hobetu dira, Hitzarmen Ekonomikoaren bitartez Estatuari egiten zaion ekarpena negoziatu da urtean 120 milioiko aurrezpena lortuz aurreko Gobernuak negoziatzen zuenarekin alderatuz. Azken bi jardunaldiak superabitarekin ixtea ahalbidetu du horrek guztiak, bai eta 2007 urteaz geroztik lehen aldiz zorra murriztu ere. Komunitate Autonomoen artean baxuenetakoa izanik, Nafarroa A+ kalifikazioan eta joera positiboan mantenduz, baimendua dugun gehiena eta Estatuaren baino bi maila gorago. Baliabideen sorrera eta kudeaketa eraginkorra Gobernu honen atalik distiratsuen da ziurrenik.

Uxue Barkosen Gobernuak bultzatu duen S3 deituriko estrategiak (Smart Specialization Strategy) gizarte eta lurralde kohesioa duen Nafarroarentzako eredu bat definitzen du, industrialia, jasangarria, lehiakorra eta osasuntsua dena, eta plan estrategiko sorta baten bitartez garatzen da, sektore estrategikoetako klusterrak eta proiektu estrategiko zehatzak bultzatuz. Epe luzerako estrategia bat da, enpresekin, eragile sozialekin eta ezagutzaren eragileekin adostua, gobernantza publiko-pribatuarekin eta kanpo auditorietza du gainera.

1. ENPLEGUA SORTU ETA FINKATU

HELBURUAK

- › Nafarroako garapen adimentsuaren estrategian sakondu eta aurrera egin, bere helburuak 2030 urtera arte finkaturik baitaude.
- › “2017-2020 Enplegurako Politika Aktiboan Plana” garatzen jarraitu eta Nafar Lansaren ezarritako aldatetetan eta bertan ezarritako esku-hartze eredu berrian sakontzen jarraitu. Arreta integralerako eredu bat, lan bizi osoan zehar formakuntza eta orientazio profesionala modu proaktibo eta pertsonalizatuan eskaintzen dituen, eta behar bereziak dituzten kolektiboetan fokaturik, honek guztiak enpleguaren sortzea eta enpresen garapena lagundu beharko duelarik, bai eta Ekonomia Sozialeko enpresetan ere.
- › Estatu mailan langabezia tasa txikiena izaten jarraitzeko helburuarekin, datorren legegintzaldian 15.000 lanpostu berrien sortzea bultzatu.

PROPOSAMENAK

- › Funtsezkoa da Talentuaren Plan Estrategiko bati ekitea, epe ertain eta luzera behar ditugun prestatutako pertsonen gure beharren azterketatik abiatuz, gure sektore estrategikoei dagokienez bereziki eta bai profil kopuruan ere, Nafarroak behar dituen giza baliabideak edukiko dituela modurik onenean bermatzeko bideak definituz.
- › Nafarroako Osasun Publiko eta Lan Osasunaren Institutuaren bitartez eta eragile sozialen lankidetzarekin, lan ezbehar-kopuruaren aurkako borroka bultzatu.
- › Kontratazeko laguntzak, kalitatezko enplegu egonkorra sustatuz, lana lortzeko zailtasun handienak dituzten langabetu taldeak lehenetsiz.
- › Berrikuntza Sozialaren Unitatetik hasi den lanak digitalizazioaren eta herritarren zahartzearen erronkei konponbideak ematen jarraitu behar du, pertsonen ongizaterako eta jasangarritasunera bideraturiko politiken bitartez.

- › Enplegua sortzeko lanaren banaketa sustatu, 39/2014 Foru Dekretu publikoa hobetuz eta antzeko proposamen bat sektore publikora eramanez, eta etorkizunean enplegua sortzeko planak egiteko oinarri tekniko eta zientifikoa edukiko duen Nafarroako ikerketa bat egin Unibertsitatearekin batera.
- › Lanbide Heziketaren sustapenaren estrategia jarraitu eta sendotu, formakuntza dualaren bitartez esparru akademikoaren eta enpresa esparruaren arteko etena murriztuz.

2. Garapen ekonomikoa

1.- BANKA PUBLIKOA

- › Kapitalaren gehiengoa publikoa izango duen eta banku lizentzia edukiko duen finantza erakunde bat sortu. Bere jarduera honakoetara zuzenduko da nagusiki: enpresa txiki eta ertainen finantzaketa gabetasunak estali, ekintzailatza sustatu, berrikuntza eta nazioartekotzea, Nafarroarentzako garrantzia berezia duten azpiegitura eta ekipamendu proiektuen finantzaketa, etxebizitza soziala bezalako politika publikoak lagundu eta tokiko administrarritza publikoei aholkularitza. Europako erakundeetatik datozen finantza baliabideak kudeatuko ditu ere, Europako Inbertsio Bankuaren funtsak adibidez.

2.- BERRIKUNTZA DIGITALERAKO POLOA

- › 2018 amaieran Espezializazio Adimentsuko Estrategiaren Zuzendaritza Batzordearen aurrean aurkeztu zen berrikuntza digitalerako poloa sortzeko proiektua garatu eta martxan jarri, horrela ikertzaileak, I+G+b eragilea, oinarri teknologikoa duten enpresa berritzaileak eta ikerketa azpiegiturak bere gain hartuz eta industriaren ezinbesteko eraldaketa erraztuz, aldi berean ekintzailatza lagunduz.

Polo horretan garrantzia berezia edukiko du Livin Lab-ek, enpresa txiki eta ertaineni bereziki zuzenduriko azpiegitura moduan ulerturik, 4.0 teknologien paradigmaren teknologia berrietara hurbiltzeko helburuarekin. Halaber, garrantzia berezia eduki behako dute superkonputazio aurreratuko azpiegiturek eta adimen artifizialaren inguruko I+G+b-ak. Nafarroako sektore estrategiko guztientzako, zalantzarik gabe interesa duen teknologia transbertsala baita.

3.- JARDUERA EKONOMIKOEN SUSTAPENA

- › Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren markoan sektore estrategikoen garapena sustatzen jarraitu behar dugu (Automozioa eta Mekatronika, Elikadura katea, Energia berriztagarriak, Osasungintza, Turismoa, Industria digitalak eta sormenezkoa), garapen jasangarrian eta lurralde kohesioan oinarrituz.
- › Ibilgailu elektriko, autonomo eta konektatuaren Naveac Navarra plataformak jarraitasuna edukitzeko eta garatzeko bultzada eman, geroz eta ezagunagoa den esparru horretan gure lurraldea erreferente moduan kokatzea ahalbidetuz.
- › Nafarroako medikuntza pertsonalizatu eta prezisiozkoaren estrategia bultzatu, I+G+b inbertsioa sendotzeko eta gure osasun sistema hobetzeko helburuaz gain, osasungintzari loturik dauden gure lurraldeko enpresen hazkundea ardatz estrategiko jakinetan sustatzeko. Berrikuntza Digitalaren Poloaren baitan sekuentziatzaile genetiko bat eraikitzearen alde egin.
- › Nafarroako Turismo Plan Estrategikoa martxan jartzea bultzatu, jarduera urtarokoa izateari utz diezaion.
- › Gure lurraldea industria digital eta sormenezkoekin duten lotura ikustaraztea ahalbidetzen duten 'Conecta Fiction' bezalako ekitaldiak Nafarroan egitea bultzatu.

- › I+G+b-ren sustapenaren estrategiarekin jarraitu eta hori sendotu, laguntzak, dirulaguntzak eta zerga sustagarriak modu egokian konbinatuz.
- › Sodenan Plan Estrategiko bat ezarri enpresa ekimen berrien laguntza lehenesten jarraitzeko eta jada daudenen hazkundera sustatzeko, bereziki lehentasunezkoak bezala definitzen diren sektoreetan dauden horiena.
- › Salneurri lehiakorra izango duen lurzoru industrialak sortu, eskualde ezberdin bakoitzeko errealitatea eta beharrianak kontuan hartuz.
- › Banda zabala industrialdeetara hedatzeko plana amaitu..

4.- EKONOMIA ZIRKULARRA

- › 2020 Nafarroako Industria Planaren baitan, jasangarritasunari, eraginkortasunari eta klima aldaketaren aukako borrokan eta trantsizio energetikoan ingurumenaren kontzientziarioari begira Ekonomia Zirkularrak dakarren aukera nabarmentzen da, baliabideen aprobetxamendu arrazional eta jasangarriaren bitartez eta hondakin kopuru ahalik eta txikiena sortuz, lehengaien erabilera optimizatzen baitu, bai eta hondakinen erabileran kudeaketa, prebentzioa eta eraginkortasuna ere, 2030 urteko jomugan Nafarroan Ekonomia Zirkularra garatzeko Agendan azaltzen den hildo berean alegia.

5.- ERALDAKETA DIGITALA

- › Digitalizazioak etorkizuneko antolakundeak markatuko dituen negozio eredu berriak bultzatzen ditu. Saihestezina den prozesu hau mesedetzean egon behar du datorren Nafarroako Gobernuaren jarduna, “enpresa kulturaren aldaketa” bultzatuz, industria babestuz, bereziki enpresa txiki eta ertainak digitalizatorako bidean, Nafarroako Lehen Industria Planak hasitako lanarekin jarraituz, eraldaketa honetarako ekintzak martxan jarri baititu, hots sentsibilizazioa, ibilbideak (diagnostikoa eta arretarako ekintza plan indibidualak), inbertsioen finantzaketa eta enpresentzako soluzio teknologikoak, Nafarroako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia enpresen klusterrari emandako laguntza, 4.0 teknologien eskaintza eta eskaeraren plataforma eta living lab-ei bultzada (formakuntzarako eta esperimenterako espazioak), bai NUPen bai eta Sakanan ere, eskualdearen beraren ekimenez.

6.- TRANTSIZIO ENERGETIKOA

Nafarroa energia berriztagarrien aldeko apustuan mundu mailako liderra izaten jarraitzen du eta orain modu integralean ulertutako trantsizio energetikoaren lider izateko aprobetxatu behar du lidergo hori. Zentzu honetan, Uxue Barkos buru duen egungo Gobernuak aurkeztu zuen eta Foru Parlamentuak onartu zuen 2030 Jomugarako Nafarroako Energia Planak modu argian definitzen du jarraitu beharreko bidea, eta horiek dira ere guk gure egiten ditugun helburuak, horien artean honakoak nabarmendu daitezkeelarik: ibilgailu elektrikoaren garapena bultzatzeko neurriak, garraio publikoaren sustapena, hirietako mugikortasun moduetan aldaketak, bioerregaiei bultzada, mikrosareak eta sare elektriko adimentsuak.

- › “Energia trantsiziorako Nafarroako estrategian” aurrera egitea proposatzen da, alor honetan Nafarroa aitzindari moduan proiektatuz, S3-ko lehentasun nagusiekin bat eta energia berriztagarrien eta energia baliabideen sektorea sartuz ere, Espezializazio Adimentsurako Estrategian lehentasunezkoa den sektorea den heinean. Indarrean dagoen Energia Planean, bai eta Trantsizio energetikorako aurkeztu zen Legearen zirriborroan jasotzen den Trantsizio Energetikorako Nafarroako Agentziaren sorrera bultzatu. Legearen onarpena bultzatu.

7.- AZPIEGITURAK

7.1. Prestazio Handiko Trena (PHT)

Argia eta agerikoa da Nafarroak prestazio handiko tren bat eduki dezan GEROA BAIk egindako apustua. XXI mendeko trena, bidaiariak eta merkantziak garraiatzeko eta Europako estandarrak betetz. GEROA BAI beti egin dugu Foru Administrazitza azpiegitura horren garapenean eragiteko gaitasun gehiago edukitzearen alde (Iruñeko trenbide kiribila, Euska Y-rekin konexioa eta abar). Erabaki horiek ezin dira Nafarroaren jarrera agertzen ez den tokietan hartu.

7.2 Nafarroako Ubidea

Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan egindako sekulako lanaren ondoren, lehen faseko handitzearen landa ureztagarriko ekintzak lehenbailehen amaitzea proposatzen dugu, bai eta Nafarroako Ubidearen Erriberarainoko jarraipenaren garapena Canasako kontseiluan bultzatzea lehenbailehen egin dadin, bai soluzio teknikoari dagokionez bai eta ekintzen finantzaketari dagokionez ere, Estatuko eta Nafarroako Gobernuen arteko konpromiso orekatutik eta elkarbanaturiko esfortzutik, eta Nafarroako Ubidearen Erriberako etorkizuneko landa ureztagarrien diseinuan eta bere ekintzetan aurrera egin.

7.3. Bide sarea

Parlamentuko indar guztien artean, Nafarroako garapen ekonomikoa eta aldi berean gizarte eta lurralde kohesioa sustatzeko gure errepide sareak behar dituen handitze eta hobekuntza lanak burutzeko ahalbidetuko duen epe luzerako adostasun handi baten alde lan egin. Horretarako, honakoak izango dira lehentasuna izango duten proiektuak:

- › Ezkabako tunelen eta Itaroaren artean Iruñeko Errondaren bitan banatzea.
- › 121A errepide nazionala 2+1 ereduari eta Belateko tunelen konponbideari jarraituz.
- › Madrileko autobidea.
- › Sarrigurengo Errondan, Zizurren eta Berriozarren errotonden hobetzea.

Egun bideen mantentzerako dauden kontratuetan baliabide ekonomikoaren gorakada nabarmenaren ildoari eutsi, Nafarroako bide sarea baldintza egokietan mantentzeko.

7.4. Logistika

Nafarroako estrategia logistikoaren ezarpena bultzatu, arreta berezia jarri Iruñeko (Noain-Imarkoain) eta Tuterako (Castejon – Agroelikaduraren Hiria) area intermodalen garapenari, Adif eta Sustapen Ministerioarekin beharrezko kolaborazioak erraztuz.

7.5. Bidarientzako hirien arteko garraio plana

Sistema informatikoetan inbertsioak egin ondoren eta 2015-2019 legegintzaldian egindako prozesu parte-hartzaileen ondoren, bidarientzako hirien arteko garraiorako eskualde-kontzesioen eguneratzea amaitu.

3. ENPRESA

LEHEN SEKTOREAREN SUSTAPENA

- › Asoziazionismoa eta kooperatibismoa bultzatzen jarraitzeko konpromisoa, bai eta antolakundearen hazkundera ere.
- › Familia nekazaritza eredu jasangarriaren eredu bultzatu.

- › Jarduera osagarria duten landa eremuak sustatu, horrela dinamismoa mesedetzeko eta populazioa mantentzeko.

EKONOMIA SOZIALAREN SUSTAPENA

Ekonomia soziala Nafarroan tradizio luzea duen enpresa eredua da eta gaur egun zama handia du bere ekonomian eta enpleguan, horregatik Foru Gobernuak modu erabakian laguntzen du. Ekonomia Sozialaren Lehen Plan Integralaren lantzea eta bere betetze maila handia nabarmenduz.

- › Lan horretan sakontzen jarraitu beharko da eta zentzu horretan ona izango litzakete Nafarroako Gobernuan Ekonomia Sozialaren presentzia organikoa handitzea, bai eta Mondragon Kooperatibarekin eta Ekonomia Sozialaren Plan Integraleko eragileekin elkarlanean Ekonomia Kooperatiboaren Institutu Publiko baten sorrera planteatu ere, eredu hori sustatzeko tresna moduan eta bertako bultzatzaile eta langileei formakuntza eskaintzeko ere.
- › Kooperatiben Foru Legea eguneratu, egungo bere dimentsioa islatzeko eta sektorearen beharrezko erantzuna emateko.

ENPRESA EHUNAREKIN HARREMANAK

- › Estrategia eta aurrekontuekin konpromisoa mantendu eta unibertsitateekin, enpresa organismoekin eta teknologia zentroekin elkarlanean aritzeko mekanismoak ezarri, modu horretan, kanpora irten ahal izateko beharrezko inbertsioak eta ekintzak egiteko neurri edo baliabide nahikorik ez duten enpresen nazioartekotzea ahalbidetuz.
- › Barne merkataritza eta Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdean enpresen barne merkataritza eta inbertsioa sustatu, Europako beste eskualdeekin elkarlanean. Euroeskualdearen lan ildo estrategikoak sendotu: herritarrak, enpleguari arreta berrezia, mugikortasun jasagarria eta ezagutzaren ekonomia.
- › Sektore estrategikoetan klusterrak bultzatzeko eta finkatzeko politikarekin jarraitu.
- › Nafarroako Espezializazio Adimentsurako Estrategiaren (S3) bide berean dauden eskualde garapenerako ekimen guztiei babes osoa eta agerikoa eman.

MERKATARITZA TXIKIZKARIA

- › 2018-2020 gertutasuneko merkataritza txikizkaria bultzatzeko Plana mantendu, zenbait neurriren zabaltearekin. Bereziki, BIDen, Business Improvement District, Foru Legearen onarpena.
- › Merkataritza berriari, landa eremuan bereziki bultzada eman, populazio gutxiko edo barreiatuko populazioa duten eskualde jakinei balioa emango dion merkatal garapena eta garapen turistikoa sustatzeko.
- › Tokiko administrariari aurrekontuetatik diru-laguntzak eman zentro historikoak berreskuratu eta mantentzeko, modu horetan turismoa mesedetuz eta tokiko ekonomia mantenduz. Auzo eta herrietan merkataritza ardatzen sortzea bultzatu, mugikortasuna murriztuko duen eta bizilagunen, dendarien eta zerbitzuen erabilera orekatua izango duen hiri konpaktuaren defentsa eginez.

X. INGURU NATURALAREN ZAINITZA

Jasangarritasunarekin, ekonomia zirkularrarekin eta klima aldaketaren aurkako borrokarekin konpromisoa Nafarroak 2015-2019 legegintzaldi honetan aho betean bere egin duen erronka atzeraezina da. Paradigma aldaketa erabatekoa da. Ingurumen alorrean UPNren ekimena Foru Administraritzaren aurrekontuei zegokioen maldan behera zihoan urteak ikusi genituen. Nafarroak alor honetan harrotasuna erakutsi zezakeen garai hura urrun geratu zen. Aldaketaren Gobernuarekin ordea, Ingurumen arloan aurrekontuak joera aldaketa edukitzeaz gain, berriro ere ehunekoetan haziz murrizketa urteen ondoren, - 12,8 milioitik 22,5 milioira legegintzaldian - norabide aldaketa globala eman delako ikuspegi estrategiko berri batean ardaztutako politketan oinarrituz, mundu, Europa eta eskualde mailako estrategia handien testuinguruan, jasangarritasuna oinarritzko printzipio moduan hartuz.

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan ezartzen den strategiaren markoan, Nafarroak jasangarritasunaren kulturadun lurralde bihurtu nahi du. Bide horretan, 2015-2019 legegintzaldian zedarria ugari jarri dira. Garrantzitsuenen artean honakoak daude: 2014-2020 aldirako Nafarroaren Landa Garapenerako Plana eta bere aldaketa; 2017-2027 Nafarroako Hondakinen Plana eta hori betetzeko bere ondoko Foru Legea; babes bereziko zonak ezartzeko prozesua; Klima Aldaketaren aurkako Ibilbide Orriaren onarpena; zortzi urterako Life Nadapta proiektua martxan jartzea; "Nafarroa Ezagutu Sarearen" martxan jartzea toki natural babestuen web orrialdearekin batera, bai eta Nafarroako Gobernuak landutako ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen Foru Lege aurreproiektuarekin, eta Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Lege aurreproiektuarekin.

Landa munduari espezifikoki dagokionez, Aldaketaren Gobernuaren apustua nekazal sektorea Nafarroako egitura ekonomikoaren baitan finkatzera bideratua egon da, bere lehiakortasuna hobetuz. Honen adibide da aurrekontuak 2015 urtearekin alderatuz %40ko hazkundera eduki izana nekazaritza ustiategiak modernizatzeko, gazteak sektorean barneratzeko edo ekoizpen sistema jasangarriagoak bultzatzeko. Nafarroak Europar Batasunari planteatu dizkion Landa Garapenerako Planaren aldaketak ildo horiek sendotzeko bidea hartu dute. Urte hauetan Foru Gobernuak egindako ekintzan halaber nabarmendu beharrekoa da nekazaritza ekologikoaren, arraza eta barietate autoktonoen garapena eta finkatzea bultzatzeko egindako apustua, bai eta merkaturatze kanalen eta zirkuitu laburren garapenarena edo tamaina ertaineko familia ustiategiaren osatzen duten abeltzaintza sektorearen defentsa marko-proiektu intentsiboan aurrean. Era berean, abeltzaintza azpiegiturak zaharberritzeko eta baso-lanak burutzeko diru-laguntzen etengabeko murrizketen ondorengo egoera larria leheneratzeko urte hauetan egindako esfortzu ekonomikoa nabarmendu beharra dago.

Proposamenak

1. KLIMA ALDAKETA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA

- › 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuak Nafarroako Gobernuko politika publiko guztietara egokitzeko aurrera egin. Jomuga berarekin Nafarroako Ekonomia Zirkularraren Garapenerako Agendan jasotzen diren helburuak eta lan ildo transbertsalak garatu.
- › Hondakinen eta bere Zergen 14/2018 Foru Legearen garapenean aurrera egin Estatu mailan aitzindaria den legedi moduan aldarrikatuz eta ekonomia zirkularrera iristeko Estatuaren lege oztupoak ekidinez. 2017-2027 Planean ezarritako hondakinen prebentzio, jasotze selektibo eta kudeaketa helburuak betetzeko beharrezkoak diren neurriei bultzada eman.

- › Toki erakundeek eta eragileek baso alorrean egiten dituzten inbertsioak sustatzen jarraitu eta ingurumen basozain eredu berri bat garatu. Nafarroako Baso Agendaren garapena. Tokiko egurraren ziurtapenerako prozesuak sustatu, Nafarroak eraikuntza sektorearen industrializazio prozesuan moduan aktiboan parte hartu ahal izateko helburuarekin.
- › Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Foru Legearen onarpena bultzatu, egungo Gobernuaren lege proiektua abiapuntu moduan hartuz, eta ondoren hura bete ahal izateko beharrezko neurriak martxan jarri.
- › Ingurumenean eragina duten jardueren inguruko kontrolerako legegiaren eguneratzea amaitu.
- › Klimaren aldeko Emakume Aktiboen Sarea martxan jartzeko konpromisoa bultzatu.
- › Bioaniztasunaren aldeko apustua egiten jarraitu, mehatxupean dauden espezie basatien zerrenda behar bezalako eguneratzearekin mantenduz eta hobetuz (flora eta fauna), bai eta paisaiaren babeserako figurak ere. Nafarroa Ezagutu gune naturalen sarearen garapena, gai eta paisaia zein azpiegitura berdeak babesteko eta baloratzeko zuzendurik dauden neurriena ere.
- › Ingurumenaren informazio eta boluntariotzarako jarduerak bultzatzen jarraitu.
- › Uraren marko direktibaren printzipioak Nafarroako eskualde guztietan martxan jarri, horretarako 2030 urteko jomugaren baitan onartutako estrategia eta planak erabiliz kontsumo moderatu eta jasangarriak lortzeko, ureztatze landetan aldi honetarako onartu diren ekimenak barne hartuz. Ebro ibaiaren Foroaren markoan uholdeen prebentziorako neurriak ezarri.

2. NEKAZARITZA, ABELTZANTZA ETA ELIKADURA

- › Nafarroako nekazal erakundeekin batera Europar Batasunaren aurrean PAC laguntzen erreforma eskatu, nekazaritza profesionalean, familia ustategietan eta landa garapen jasangarrian oinarrituz, horretarako gaur egun dagoen ordainketa ereduarekin amaituz. Bruselak 2021-2027 aldirako planteatu duen %5eko aurrekontu murrizketaren aurka agertu.
- › Nafarroako ekoizpen ekologikoaren sustapena. Sektore ezberdinetako ekoizleek (edariak, olioak, frutak eta barazkiak) haien produktuak gertutasunezko merkatuetan eskaini ahal izateko formulak garatu.
- › Nafarroako ardogintza eta enologiaren garapena EVENAren bitartez bultzatzen jarraitu. Nekazaritzako elikagaiek alorrean berrikuntzaren eta esperimendazioaren aldeko apustua.
- › Kalitatezko produktuen sustapena bultzatu, horretarako adierazle eta sor-marka espezifikoak erabiliz, eta autonomiaz gaindiko kalitatezko marken sorrerarekin.
- › Cure komunitatean ohikoa den tamaina ertaineko abeltzaintza ustategi eredu defendatu, haien mantentzerako baldintza sanitario eta ekonomikoak bermatzeko lan eginez.
- › Etxeko animalien babeserako Foru Lege berriak ezarritako eskubide eta betebeharren garapenean aurrera egin.
- › Foru Administaritzaren eta lurraldearen dinamizaziorako eta tokiko administaritza berriaren ondorioz ere eskualdeen garapenerako funtsezkoak diren eragileen arteko elkarlanean egingo den landa garapen baten aldeko apustua.

3. EKIMEN ZEHATZAK

- › **Nafarroako Ubidea:** Lehen faseko zabalkuntzaren (Lizarraldea) ureztatze landetako lanak amaitu eta Ubidearen bigarren fasea Erriberaraino garatu, horretarako egokiena den erantzun tekniko eta finantzarioa erabiliz.
- › **Esako Urtegiko lanak:** Handitze lanak direla eta, segurtasun baldintzei buruzko estudio independente bat egin, Estatuko Administaritzak jarritako erresistentziak saihestuz.

XI. TOKIKO ESPARRUA ETA LURRALDE OREKA

Nafarroako tokiko esparruak aparteko norabide aldaketa ikusi du azken lau urteetan Aldaketaren Gobernuaren ekimenaren ondorioz. Krisialdi ekonomikoaren eragin kaltegarria gutxietsi gabe, 2015ean gure tokiko erakundeek bizi zuten egoera ezin da egoera horri bakarrik egotzi, egoera hori UPNk eta PSNk Foru Administrazitaren buruan eta Alderdi Popularrak Estatuko Gobernuaren buruan egindako politiken eragin zuzenaren ondorio baitzen ere.

2015ean Nafarroako udal eta kontzejuek haien bizilagunen zerbitzu publikoei aurre egiteko zituzten finantzaketa beharrak transferentzia korronteen funtsarekin estaltzea ezinezkoa zen, hamarkada hasieran UPNren Gobernuak gogor murriztu baitzuen beste alorretan zituen finantzaketa beharrei aurre egiteko eta aurrekontuen egonkortasun helburuak betetzeko. Hori bai, udalen patriketan eskua sartuz egina ere. Funts horrek berebiziko garrantzia du udalek et kontzejuek euren ohiko jarduera burutu ahal izateko, eta murrizketa bidegabe hori egin eta urte askoren ondoren, Aldaketaren Gobernuak iritsi arte ez da eguneratua izan.

2015-2019 legegintzaldia aldi baterako arnasa izan da UPN, PSN eta PPren politiken ondorioz Nafarroako toki erakundeek haien eguneroko jardunean jasan duten itoaldiaren ondoren. Horrela, transferentzia korrante funtsa KPI+2 puntu urtetan eguneratzeaz gain – ia 29 milioi gehiago edukiz – Uxue Barkos buru izan duen Gobernuak beste neurriak hartu ditu ere helburu berarekin, hala nola udalek aurre egin beharreko mendekoen montepioa ordaintzeko ia 6 milioi, edo ia 4 udal zergak kobratzeko salbuespenagatik zerga hobarrietan. Aldi baterako arnasa emateko neurriak izan dira, baina legegintzaldi honetan Nafarroaren etorkizuneko tokiko finantzaketari ekiteko oinarriak jarri dira ere.

Oinarrizko tokiko azpiegituren alorrean urte latzen garaia atzean utzi da ere, udalek eta kontzejuek ez baitzuten azpiegiturak zaharberritzeko inbertsioei aurre egiteko modurik Foru Gobernuaren politika zikoitza zela eta. Aurreko hamarkadako tokiko inbertsio planetan etengabeko luzapenak egiten zituen politika eta tokiko erakundeek obra horiek egin ahal izateko funtsak blokeatzen zituena. Uxue Barkosen Gobernuak ehun ekimen baino gehiago desblokeatzeko beharrezko dirua jarri du funts horretan, hots 2009 urteko plana onartu zenetik blokeaturik zeuden ur hornidurarako, zolatzeetarako edo bide edo udal erakinetarako proiektuak, ia 20 milioi eurekin; 2017-2019 urte bitartean oinarrizko tokiko azpiegiturretan inbertsio behar berriei aurre egiteko 100 milioi dituen plan bat onartu du, eta 2018 urte amaieran 25 milioi gehiago jarri ditu helburu honetarako, legegintzaldi honetan Nafarroak Estatuari Hitzarmen Ekonomikoaren markoan egiten dion ekarpenaren negoziazioan Nafarroaren alde lortutako emaitzarekin. Oinarrizko tokiko inbertsioen planifikazioa egiteko politika berri baten aurrean gaude, lurralde orekarako tresna moduan ulertzen baitugu, txikiagoak diren eta barreiatze geografiko handiagoa duten toki erakundeek diskriminazio positiboa eginez eta ekimen klasikoek gain, berriak hartuz, hala nola foru lurralde osoan banda zabala hedatzeko inbertsioak.

Baina norabide aldaketa modu sendoenean nabaritu den alorra, Nafarroako toki administraritzaren eztabaidarekin amaitzea izan da, orain dela 30 urtetik hona esperoan zegoena alegia, eta aurrekaririk ez duen prozesu parte hartzaile baten bidez egin da gainera, toki esparruko ordezkariak protagonista bihurtuz. Nafarroako toki administraritza egituratzeko oinarriak jarrita amaitu da legegintzaldia, lurralde desorekak konpontzeko ikuspuntua ezarriz, haien konpetentziak fidagarritasunez jardun ditzaketen udalez gaindiko eskualdeen bitartez edozein Nafarroako herritarrek, non bizi axola gabe, haien beharrianei zerbitzu egokiek in erantzuna aurkituko dietela bermatuz.

Proposamenak

1. LURRALDE OREKA

- › Nafarroako gunen ezberdinetan eskualdeen sortzeko prozesuen garapena, Foru Administraritzatik beharrezko akonpainamendua burutuz.
- › Despopulazioa leheneratzeko beharrezko neurrien ezarpena bultzatu, arreta berezia jarritz Zangotza aldean, Lizarraldean edo Pirinioan, horretarako azken urteetan egindako analisiak erabiliz.
- › 2016an ikuspuntu egituratzailetik lurraldearekin harremana duten politikak koordinatzeko eta garatzeko elementu moduan sortu ondoren, LURSAREA – lurraldearen eta jasangarritasunaren Nafarroako agentzia – aldeko apustua egiten jarraitu.
- › Urbanizatu ezin daitekeen lurzoruari dagokion legedia eta Udalez Gaindiko Eragineko Plan Sektorialaren araua aldatu, udal autonomiaren zapalketa ekiditeko.
- › Toki erakundearen aldetik hirigintza ordenamenduaren tresnak eguneratzeko laguntza tresnak garatzen jarraitu.

2. TOKIKO FINANTZAKETA

- › Tokiko zerbitzu publikoen kostuen kalkulu zehatza egiteko egiten ari diren prozesuak amaitu, horien finantzaketa nahikoa bermatzeko.
- › Tokiko finantzaketa berria arautuko duten lege tresnak garatu (zergak eta tasak, transferentzia korronteak eta kapital transferentziak).
- › Toki erakundearen finantza egoera larriari arreta emateko, Foru Administraritzatik erreskate funts bat arautu eta garatu.

3. GARDENTASUNA ETA HERRI PARTAIDETZA

- › Toki erakundearen antolamenduaren eta ekonomia eta finantzen kudeaketa hobetzeko, erakunde ezberdinekin (Kontuen Ganbera, NUKF eta abar) tresnak garatzen jarraitu (inbentarioak, kontularitza espedienteak eta abar)
- › Partaidetza eta gardentasun prozesuetan, bai eta administraritza elektronikoa ezartzeko prozesuetan ere Foru Administraritzatik horiek laguntzeko mekanismoak bultzatzen jarraitu.

XII. KULTURA

1. Helburua

- › Gizarteari kohesioa ematen dioten eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko funtsezko bizikidetzako markoak sortzen dituzten baloreak, bizitzeko moduak eta pentsatzeko moduak sustatu.
- › Kulturaren sormenezko dimentsioa ahal bezain beste zabaltzeko, milurtekoaren erronka berriei erantzuna emateko: jasangarritasuna, ziurgabetasuna, globalizazioa, teknologia berriak eta kultura digitala.

2. Indar ideiak

- › Kulturaren balio publikoa eta kultura eskuratzeko eskubidea gizarte parekiadeago eta parte hartzaileago bate eraikitzeko funtsezkoak dira.
- › Nafarroak kultura nortasun boteretsua du: bi tradizio esanguratsu ditu -euskalduna eta erromantzea-. Bere bi hizkuntzak (euskara eta gaztelera), bere nortasun historiko sendoak, bere tradizio eta ohitura herrikoiek eta bere herritartasun berriaren nortasun anitzek, aniztasunaren eta pluraltasunaren lurralde moduan sortu eta aberasten dute.
- › Kulturaren finantzaketa publikoa: Kulturaren garapenak finantzaketa publiko nahikoa, egonkorra eta ezegonkortasun politikoetatik salbu dagoena behar du.
- › Partaidetza: eragile eta herritarren partaidetza kulturaren garapenean, adierazpen artistikoetan eta kultura politiken definizioan inplikazioa bultzatzea da helburua.
- › Euskara: Euskarari eta kultura adierazpenei babesa beharrezkoa da, jasan duen abandonuak eragindako etena gainditzeko. Euskarari loturiko arte sorkuntza bultzatu, bai eta formakuntza, ikerketa, ekoizpen, hedapen eta bitartekaritza lana ere.
- › Kultura eragileen formakuntza: Formakuntzak kulturaren eragile ezberdinen gaikuntza beharrei erantzuna eman behar die, oinarrikoenetatik hasita espezializatuenetaraino, eta kultura sektore guztietan. Unibertsitate Publikoan Arte eta Humanitateen ikasketak ezartzea ezinbestekoa da.
- › Artearen sorkuntza bere lengoia eta adierazpen ezberdinetan sustatu, berrikuntzaren, ikerketaren eta sorkuntzaren aldeko apustua eginez.
- › Kultura garaikidearen sustapena eta bultzada, hausnarketarako, eztabaidarako eta pentsamendu kritikorako gune eta esparruen bitartez.
- › Profesionaltasuna: Sektore bakoitzeko espezifikotasunei erantzunez, artista eta kudeatzaileen profesionaltasuna mesedetu, beharrezko arau aldaketak sustatuz ere.
- › Kultura ekintzailtza: Gazte talentuari enpresen sortzean eta kultura proiektuetan laguntza eman.

Ekimen proposamenak

1. Kultura Eskubideen Foru Legea garatu eta ezarri.
2. Eskubide Kulturalen Foru Legea betetzeko beharrezko finantzazioa bermatu.
3. Profesionalak eta herritarrak kultura politiken definizioan, garapenean eta ebaluazioan parte hartzea ahalbidetuko duen gobernantza eredu berria eta kulturaren garapena finkatu.

4. Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren eta Kultura Zuzendaritza Nagusiko Zerbitzuen ekintza planen garapena eta ebaluazioa.
5. Euskaraz bizi: eskuragarritasuna bermatu eta sorkuntza eta ekoizpena lagundu
6. Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarearen eta horietan zerbitzua ematen duten bere langileen egoerari buruzko eta balizko hobekuntzei buruzko estudio bat egin.
7. Nafarroako Kulturaren Atari Digitala sortu.
8. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eta udalerrien arteko koordinazio Foro bat bultzatu, bertan kultura politikak eta Kultura Eskubideen Foru Legearen ezarpena artikulatzeko, Nafarroako bost esparru geografikoetako (LAP) udal kultura teknikariek.
9. Elkarlaneko artea sortzeko guneen sustapena (arte gaztearen sormen fabrika) Iruñean, Tuteran, Tafallan, Elizondon, Zangotzan eta beste abarretan.

XIII. KIROLA

Azken lau urteetan Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak garatu duen lanak, jarraitu beharreko bidea ireki du, Nafarroako herritarrek merezi duten zerbitzuaren kalitatea lortu arte esparru guztietan sakonduz.

Ildo nabarmenenak eta lantzen jarraitu beharrekoak honakoak izan dira

- › Eski edo bela bezalako eskola kanpainen egoera leheneratu da, horien irismena handituz.
- › Teknikariaren formakuntzarako laguntzen ezarpena.
- › Urteroko diru-laguntzen plan estrategikoa martxan jartzea, diru-laguntza eta laguntzen deialdiak sinplifikatuz, eta horiek kirol denboraldietara egokituz eta egutegiratuz.
- › Amankomuneko proiektuak martxan jarri dira, hots saskibaloia, eskubaloia edo futbol emakume taldeak.
- › Emakumeak jarduten duen kirolari bultzada handia eman zaio.
- › Kirolean Baloreen Plana, Nafarroako Kirol Jokoetan garrantzia handia emanez.
- › Nafarroako Gobernuak beste departamentuekin koordinazioan programak burutu dira, kirolaren eta jarduera fisikoaren transbertsaltasunaren balioa azpimarratuz, hots:
 1. Jarduera fisikoa herritarren errezetan sartzea
 2. Belagua eta Abodiko aterpea zaharberritu
- › Nafarroako Kirolaren Kontseiluari bultzada, kirolaren lanbideak arautzen dituen Foru Legearen onarpena Nafarroako Gobernuaren aldetik
- › Kirol azpiegiturei dagokienez, honakoak nabarmentzen dira:
 1. Navarra Arena pabilioia martxan jartzea.
 2. Larrabide Estadioaren zaharberritzea (futbol zelaia, atletismo zelaia eta abar)
 3. NUP edo Taxoareko instalazio enblematikoak herritarrei zabaltzeko hitzarmenak egin dira.
 4. Administraritzak erabiltzen ez zituen eta Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak ematen zizkien instalazioekin berreskuratutako eta berraktibatutako hitzarmenak
 5. Finantziarioki Jasangarriak diren Inbertsioekin Nafarroarentzako beharrezkoak ziren instalazioen proiektuak egin dira, hala nola Beisbol Zelaia, Rugby zelaia eta Atletismo modula.

PRINTZPIOAK ETA BALOREAK

Berlinen 2013ko maiatzean egin zen Heziketa Fisikoaren eta Kirolaren ardurapeko Goi Funtzionarioen eta Ministroen Nazioarteko Konferentziaren bileran egin zen Berlingo Adierazpenean ziurtatzen denez, pertsona orok eduki behar du kirola eskuratzeko aukera eta kirolean parte hartzeko funtsezko eskubidea, bere etnia jatorria, sexua, adina, eragozpenak, kultura eta gizarte maila jatorria, baliabide ekonomikoak, genero nortasuna edo sexu orientazioa edozein dela ere.

Geroa Baik printzipio hori geure egiten dugu. Kirola herritarrentzako eskubide moduan ulertu beharra dagoela uste dugu. haien beharrezkoak eta itxaropenei erantzuna emanez, horregatik kirol jarduerak askea eta boluntarioa izan behar du. Bere aldaera ezberdinetan praktikatzeko duten pertsonekin batera, erakunde publiko zein pribatuek kirolaren sustapenean eta garapenean parte hartu behar dute. Zentzu honetan, kirolak onura handiak dakartza osasuna bezalako funtsezko alorrean, horregatik herritarren artean kirol jardueraren ohitura sustatuko duten planak egitea beharrezkoa da.

Mendekotasuna sortzen duten apustuak – gehienetan kirolari lotuak – gizartearen arazo larri bilakatu dira, gazteen artean bereziki, eta Geroa Bain uste dugu horrelako jarduerak kirolarenak berarenak diren eta kirolaren bitartez irakatsi behar diren printzipio eta baloreen aurkakoak direla, horregatik, mendekotasuna eragiten duten gizartearen gaitza diren apustuak deuseztatzen laguntzeko beharrezkoak diren baliabide eta neurriak ezarriko ditugu.

NAHI DUGUN KIROL POLITIKA

Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 15eko 15/2001 Foru Legeak kirolaren sustapenerako konpetentzia zabala ematen dio Nafarroari, baina komenigarria da kirolaren sustapen eta garapenaren esparruan gobernu ekimenak eduki behar dituen oinarriko helburuak definitzea eta kirolak harremana duen beste gainontzeko esparruak ere aintzat hartzea, hots hezkuntza, osasungintza, kultura, ingurumena eta turismoa, bai eta gizarte-inklusioa ere.

Nafarroako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Foru Lege berria gaur egungo gizarteari egokitzeko beharra dago, egungoak aintzat hartzen ez dituen gaiak sartuz, gizarteak hala eskatzen baitu eta jada eguneroko errealitatearen zati baitira, eta horretarako ondoko lan ildoak abiatu edo jarraitu beharra dago:

- › Berdintasun, Irisgarritasun, Inklusio, Bitartekaritza Bulego, Kirolaren Balore, Balore Ordezkarri, Gardentasun, Kirol erakundearen Gobernantza Zuzena eta abarreko egitura eta programen finkatzean eta laguntzea sakondu.
- › Teknikarien formakuntza areagotu eta Kirol titulazioak eskuratzea erraztu.
- › Kirol boluntarioaren figura arautu.
- › Urteroko diru-laguntzen plan estrategikoa finkatu.
- › Kirol instalazioen plan estrategikoa finkatu.
- › Kudeaketa publikoaren aldeko apustu argia, zerbitzu jakin batzuk kanpora ateratzeko ere aukera egonik baina kudeaketa publikoa gordez.
- › Federazio, Klub, Udal eta Mankomunitateen arteko koordinazioa bultzatu, lan bikoitzak ekiditeko.
- › Interes orokorreko kalifikazioa duten kirol proiektu edo ekitaldien kirol babesu sustatu, ez ordea merkataritza helburua dutenak.

EKIMEN PROPOSAMENAK

2023 urterako Nafarroan kirolari eta jarduera fisikoari dagokionez ditugun erronkak honakoak dira:

- › Kirolean BERDINTASUNA sustatu. Kirol eta Emakumearen Planarekin jarraitu.
- › Jarduera fisikoaren eta Kirolaren ESKURAGARRITASUNA lehentasuna da. Bere bazkideen artean kirola lantzen duten elkarteak lagunduko dira.
- › Kirolaren Baloreen garapenean sakondu, kirol gatazketan bitartekaritzarako bulegoa mantendu eta sendotu.
- › Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Foru Lege berri bat sustatu, gaur egungo garaietara egokitzu.
- › Kirol Gaikuntzarako eta formakuntzarako Planak. Nafarroako Kirolaren Eskolak berak Miguel Indurain Fundazioaren baitan kirolen irakaskuntza arautua eskainiko du modu iragankorrean. Kirol formakuntzarako laguntzak handituko dira.
- › Nafarroako Jokoen berrikuntza eta modernizazioa.
- › Osasun Departamentuarekin batera Osasunaktibitate proiektua martxan jarri
- › “Nafarroa marka” sortzen duten Nafarroako kirol proiektu eta ekitaldiei Miguel Indurain Fundazioaren bidez laguntzeko bideak sortu.

- › Kirol Errendimendiaren Plana garatuko dugu, Kirolaren Ikasketa, Ikerketa eta Medikuntzaren Zentroaren papera nabarmenduz eta gure kirolarien karrera osoan laguntza emateko moduko dotazioarekin, bereziki talentu gazteak direnean.
- › Modernizazio eta azkartze prozesu batekin Nafarroako federazioen sistemari laguntza emango diogu.
- › Udal kirol zerbitzu aktiboak eta proiektu estrategikoak dituztenak bultzatuko ditugu.
- › Kirola gure kulturaren zati moduan: Laxoa Interes Kulturalako Ondarea, Pilota Plana eta Herri Kirolak.
- › Kirol eragile ezberdinekin elkarlanean jarduera fisikoa erraztuko duten kirol ibilbideak landu.
- › Kirol instalazio seguruak eta herritarren beharrei erantzuna emango dietenak.
 1. 2020 urtean Instalazioen Plan Zuzendari bat landu, plan horri aurre egiteko gutxieneko 4 urteko iraupenarekin.
 2. Kirol erakundeetan eta Toki Erakundeetan instalazioak hobetzeko eta berriak eraikitzeke diru-laguntza deialdia egiteko aurrekontu ildo bat ezarri
 3. Nafarroako jendarteari kirol instalazio publiko eta pribatuak zabaltzeko lankidetzaz hitzarmenak sinatzea ahalbidetuko duen Deialdia egin.
 4. Nafarroako Pirinioaren laguntzarekin Belarouateko obrak amaitu.
 5. Foru Komunitate osorako instalazio berezien erakuntzari ekin, hala nola:
 - › Larrabideko atletismo modulua
 - › NUPen kirol zentro berezia sustatu, beisbol eta rugby zelaien eraikuntzarekin. NUPeko instalazioen erabilerrako akordio bat erdietsiko dugu.
 6. NICDO Nafarroarentzako estrategikoak diren instalazioen kudeaketan lagundu: Larra-Belaguako Estazioa, Abodi, Tafallako belodromoa, izotz patinaje pista.
 7. Kirol-pass Kirol txartelaren ezarpenaren garapenarekin jarraitu
- › Miguel Indurain Fundazioaren papera sendotu, behar duen egitura eman.
- › Apustu enpresek finantzaturiko edo babesturiko kirol ekitaldi BAKAR BATEK ERE EZ du NKGI-ren diru-laguntzarik edo babesik edukiko.
- › Hezkuntza Departamentuarekin elkarlana, Iruñerrian Kirol Jarduera Fisikoaren Lanbide Heziketa eskaintza publikoa sortzeko.
- › Osasun Departamentuarekin koordinazioan osasun arretako larrialdien arautzea hobetu
- › Kirolean euskararen normalizazioa eta ikasleen artean bere erabilera mesedetuko duten jarduerak laguntza zehatzekin bultzatu.

XIV. GAZTERIA

Geroa Baik indar erakargarria, barneratzailea eta Nafarroako gazteen interesen defentsari izaten jarraitu nahi du, gazteen irrika politiko eta sozialak gizartearen aurrean ordezkatzeari helburu dituen indar eta esfortzuen batura alegia. Horregatik, Gazteok Baiko gazteak lanean dihardugu Geroa Baik gazteriaren oraina eta geroa ziurtatuko duten politikak garatzen jarrai zena, horretarako ondoko proposamenak eginez.

Proposamenak

1. EGITURA INSTITUZIONALA

- › Legegintzaldi honetan Aldaketaren Gobernuak egin duen moduan, gazteria politikak organismo transbertsal baten baitan kokatzearen alde egiten dugu, Foru Exekutiboko departamentu ezberdinekin elkarlanean aritu dadin. Gazteria politiketan erabiltzen den aurrekontua modu jarraituan handitzea proposatzen dugu.

2. UDALEKIN LANKIDETZA

- › Gazteria planak sustatzeko Toki Erakundeei zuzenduriko laguntzak berreskuratu diren legegintzaldiaren ondoren, laguntza hauek sendotzearen aldeko apustua egiten dugu, bai eta Udaletan Gazteria Teknikarien ezarpena sustatzearen alde ere, figura hauek mankomunaturik egoteko aukera ere irekiz, Toki Erakundeek horrela erabakitzen badute. .

3. ENPLEGUA

- › Politikak kalitatezko enplegua sortzera bideratuak egon behar direla defendatzen dugu, gaur egun gazteok pairatzen dugun arazo nagusienetako bat enpleguaren denborazkotasuna eta lanaren ezegonkortasuna baita. Horretarako, I+G+b bultzatzen jarraitzea proposatzen dugu, bai eta Enpresa Txiki eta Ertainen sustapena eta autoenplegua (Coworkingak bezalako elkar lanerako lan-zentroak sortzea sustatu). Halaber, gazteen eskubide laboralak eta sozialak egoera duin eta egonkorretan bermatzen dituzten enpresentzako zerga sustagarriak martxan jartzea proposatzen dugu ere.
- › Ekonomia Soziala etorkizuneko ekonomia dela defendatzen dugu. Beharrezkoa da ekonomia linealetik ekonomia zirkularrera jauzi egitea, eta horretarako kooperatibismoa bultzatzearen alde eta ingurumen praktika zuzenak egiten dituzten enpresentzako laguntzak ematearen alde egiten dugu. Era berean, kooperatibak, lehen sektoreko enpresak eta/edo Ekonomia Sozialeko enpresak martxan jartzen dituzten gazteentzako laguntza berezien Plan bat egitea proposatzen dugu.

4. ETXEBIZITZA

- › Pertsona guztiek etxebizitza duina edukitzeko eskubidea defendatzen dugu, eta horregatik legegintzaldi honetan gazte emantzipaziorako martxan jarri diren laguntzen finkatzea proposatzen dugu, Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboaren Legea betez alokairurako laguntzak mantenduz, eta modu mailakatuan, alokairuentzako zerga kenkariak 35 urtera arte hedatzea proposatzen dugu ere.

5. HEZKUNTZA

- › Kalitatezko eskola publiko, eleanitz, parekide, berritzaile eta laiko baten aldeko apustua egiten dugu. NUP-ek aurrekontuetan lehentasuna eduki beharko lukeela uste dugu, kalitatezko hezkuntza publikoa mantentzea bermatzeko eta %100 euskarazkoa izango den eskaintza lortu arte aurrerapausoak ematea proposatzen dugu ere. Ikasketarako eta garraiorako beken sistema bermeduna mantentzea proposatzen dugu, legegintzaldi honetan martxan jarri den bideari jarraituz.
- › 2019/2020 ikasturtean Medikuntza ikasketen ezarpenarekin pozik gaude, bai eta Historia graduaren ezarpenarekin ere. Orain, 2019-2023 legegintzaldian zehar unibertsitate gradu berriak jartzearen aldeko apustua egiten dugu, hala nola Arkitektura ikasketak edo Komunikazioarekin harremana dutenak.

6. OSASUNA

- › Osasunaren prebentzioaren eta sustapenaren aldeko apustu argia egiten dugu. Beharrezkoa deritzogu hezkidetza programa espezifikoekin jarraitzea, Skolae bezalakoak alegia, nerabeak bizimodu osasungarrietan hezteko.
- › Nafarroan sexu transmisiozko gaixotasunen gorakada dela eta, beharrezkoa deritzogu horien arriskuen gaineko hezkuntza sendotzea, bai eta preserbatiboaren erabileraren garrantziarena ere haien prebentziorako, eta kaltetutako pertsonen antolakundeekin kontzientziazio kanpainak areagotzearen aldekoak gara, bere irismena ikusarazteko.
- › Gazteen artean ludopatiak eduki duen hazkundearen aurrean, nahitaezkoa deritzogu adin txikietan jokora iristea mugatzeko neurriak hartzea eta jokoak kaltetutako gazte edo helduen testigantza ikusaraztea.

7. BERDINTASUNA

- › Oinarrizko zaintzan eta etxeko lanetan gizon eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna benetakoa eta eraginkorra izateko politikak sustatzea nahitaezkoa da, bai eta lidergo politiko eredu berriak garatu ere, emakumeak gizonak dituen espazio berdinak eduki ditzan.
- › Ardura postu ezberdinetan soldata berdintasuna eta genero parekidetasuna sustatzen duten enpresentzako zerga sustagarriak bezalako neurri ausartak proposatzen ditugu, Uxue Barkosen Gobernuak egiten hasi duen moduan.
- › Skolae Hezkidetza programa bultzatzen jarraitzearen aldeko apustua egiten dugu, bai eta maskulinitate parekiderako programak martxan jartzearen alde ere, gizonezkoekin lantzeko zuzendurik. Homofobia, lesbofobia eta transfobia esparru guztiak deuseztatzearen alde egiten dugu, bai eta sexu nortasun eta orientazio guztiekiko errespetuaren alde ere.

8. KULTURA

- › Gazteen kultura ekoizpena sendotzearen aldeko apustu sendoa egiten dugu, horretarako Gazte Artea sortzeko fabrikak martxan jarritik, eta horrela gazteek haien gaitasun artistikoak adierazteko espazio bat edukitzea ahalbidetuz, dela hau musika edo grafittia. Horiek jabetza eta titulartasun publikoa duten espazioak izango dira, udal sare baten baitan egon daitezkeelarik, udalerrri ezberdinetako gazteek mota honetako espazioak eduki ditzaten.
- › Liburutegi ordutegien handitzearen aldekoak gara eta jarduera kulturaletara sartzeko doako bonoak egitea proposatzen dugu ere.

9. EUSKARA

- › Hizkuntza Gutxituen Europako Kartaren betetzean aurrera egitera premiatzen dugu eta euskara Nafarroa osoan koofiziala izatearen aldeko apustua egiten dugu. Gainera, Estatuaren administrarritza ezberdinek Foru Komunitatean dituzten zerbitzuetan euskara ezartzeko lanean jarraitu beharra dagoela deritzogu.

10. AZPIEGITURAK, GARRAIOA ETA LURRALDE KOHESIOA

- › Azpiegituretan eta garraioan egiten den inbertsioa ekonomiaren lehiakortasun faktore garrantzitsuenetako bat dela uste dugu, bai eta Nafarroaren lurralde kohesiorako nahitaezkoa den elementu bat ere.
- › Garraio Publikoaren sustapena dela eta, autoaren aurrean kalitate nahikoa eta lehiakortasuna duen garraio moduan sustatu beharra dagoela uste dugu, horrela tokialdatze motorizatuak ekidinez eta energia kontsumoa eta ibilgailuen ingurumen eraginak eta eragin sozialak murriztuz. Beharrezkoa da mugikortasun jasangarriaren kultura sustatzea.

11. LANDA GARAPENA

- › Nafarroako Foru Komunitateak geroz eta herritar gehiago batzen ditu Iruñean, Iruñerrian eta Tuteran, lurraldearen eremu zabalak populazio dentsitate oso murriztekin geratzen ari diren bitartean, hots Pirinioa eta Pirinio aurreko bailarak, Lizarraldeko zati handi bat edo Nafarroako Erdi Aldea.
- › Konponbideen alde lan egingo dugu: inguruari loturiko garapen ekonomiko eredu bat bultzatuz eta kultura zein paisaia ondarea baloratuz; lurraldeko zona ezberdinetako eragile publiko zein pribatuen arteko hurbilketan eta komunikazioan oinarrituko den gobernu ekintza batekin; existitzen diren industria polo ezberdinak sendotuz; zerbitzu publikoen deskontzentrazio geografikoa sustatuz; finantzaketa sistema berri bat diseinatuz, berriki onartutako Tokiko Maparen Erreformaren foru legearen garapenaren eta ezarpenaren bitartez.

12. MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA INGURUMENAREN ZAINZA

- › Politika energetiko jasangarriak proposatzen ditugu, bai eta hondakinak murrizteko, haien berrerabilerarako eta birziklatzerako hezkuntza ere, hondakinak modu egokian kudeatzen jakiteko eta hiri eta lurralde jasangarritasun politika batekin aurrera egiteko helburuarekin maila eta adin guztietan ingurumen hezkuntza eskaintzeko beharrezko baliabideak erabiliz. Nafarroako Energia Berdearen ekoizpenaren kudeaketa koordinatuko duen zentro baten sorrera proposatzen dugu, kontsumoaren %100era iristeko eta bertan, I+G+b arloan belaunaldi gazteenetako profesionalak enplegatuz.

13. JUSTIZIA, BAKEA ETA GIZA ESKUBIDEAK

- › Giza eskubideei errespetua bermatzeko, indarkeria guztietako biktimen aitortpen soziala eta ahal den neurrian ordaina defendatzen ditugu; presoek eskubideen aitortpena eta betezea; delituen biktimei ematen zaien arreta finkatu; Nafarroan azken 40 urteetan pairatutako edozein indarkeriaren egia historikoa argitzearen bitartez baketzean aurrera egin. Uxue Barkosen Gobernuak martxan jarritako Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak garatu duen lana aitortzen eta eskertzen dugu, eta ildo beretik lanean jarraitzera animatzen dugu.

14. NAFARROA EUROPAN ETA MUNDUAN

- › Nafarroa subjektu politiko moduan ulertzen dugu eta Europa barruan Nafarroa sendoa defendatzen dugu. Euskal lurraldeekin ditugun harreman politikoak normalizatzen jarraitu beharra dugu, bai eta Euroeskualdea bezalako tresnak garatzen jarraitu ere, 2017 Foru Komunitatean Euskadi-Akitania-Nafarroa euroeskualdean sartu ondoren.

15. LANKIDETZA ETA ELKARTASUNA

- › Kanpoko zorraren abolizioaren aldeko ekimenak gure egiten ditugu, bai eta BPGren %0,57 Garapenerako Lankidetzan erabiltzea ere, elikatzeko-laguntza politikaren aldaketa, Europako nekazar politikaren erreforma, espazio naturalen defentsa, merkataritza zuzena, giza garapen jasangarrien proiektuei babesa.
- › Gazteen partaidetza gizarte politikekin batera bultzatzea proposatzen dugu, boluntariotzaren bitartez elkartasun eta herri partaidetzaren baloreak sustatzeko. Legegintzaldi honetan Bertiz, Lizarra edo Urbasako boluntariotza esparruak berreskuratu diren moduan, datorren legegintzaldian Ingurumen eta Bake eta Bizikidetzako departamentuen elkarlanarekin nazioarteko lankidetzarako boluntariotza programak bultzatzea proposatzen dugu.

XV. FUNTZIO PUBLIKOA, BARNE ETA JUSTIZIA

2015ean Aldaketaren Gobernuak iritsi zenean, foru sektore publikoa gogogabeturik eta oso egoera okerrean zegoen UPNren Gobernuak alor honetan azken urteetan burututako murrizketen, utzikierarekin eta Foru Komunitateko Administrazioak behar zuen modernizazioari eta egokitzeari aurre egiteko borondate politiko ezaren ondorioz. Abiatu gabe zegoen lan kopuru handi hari legegintzaldi honetan hasi zitzaion aurre egiten, funtsean XIX mendeko patrioekin egindako arkitektura gaur egungo gizartera egokitzeko behar zen hausnarketarekin hasiz, eta sektore publikoaren eta bere funtzionamenduaren aldeko apustu argia eginez. Sakontze demokratiko, profesionaltasun, gaitasun, eraginkortasun, herritarrei irekitze eta funtzionarioen partaidetza irizpideetan oinarritze den hausnarketa horri sakontasunez eta zorroztasunez ekin zaio. Bere ondorioak Funtzio Publikoaren gaur egungo estatutuaren erreforma bat egiteko oinarri izango dira, irizpide horietara egokituz.

Hain beharrezkoa eta atzeraezina zen lan honi ekitearekin batera, funtzio publikoan aurreko legegintzaldiarekiko inflexio puntu izan diren pausoak eman dira kalitatezko zerbitzuak emateko eta giza baliabide nahikoak edukitzeko helburuarekin. Testuinguru honetan, hainbat neurri aipatu beharra dago: Estatuko legeek plaza kopuruen probisioetan baimentzen duen gehiengo kopurua agortzeko erabaki tinkoa, legegintzaldi honetan milaka plaza izanik sortutako berrien eta lehendik zeuden eta finkatu direnen artean, horretarako ondoz ondoko Lan Eskaintza Publikoak onartu direlarik (ohikoak, ohiz kanpokoak eta egonkortzekoak). Halaber, langile publikoen lan baldintzak hobetzeko neurriak ezarri dira, horretarako instalazioak egokituz, datuen babeserako antolakuntza prozedurak edo administrazio elektronikoa ezarriz eta jardunaldien, oporren eta baimenen arauetan aldaketak egin dira ere. Halaber, aurreko Gobernuak 2012an gordetako aparteko ordainsaria bere osotasunean itzuli da eta legegintzaldi honetan soldatek Estatuko aurrekontu orokorren legeek baimendutako zenbatekoetan ere gora egin dute. Nabarmentzekoa da ere urte hauetan sekzio eta negozio-bulego nagusi guztiak meritu lehia bidez hornitu izana eta Foru Komunitateko Administrazioak plazetako hizkuntza profilak berrikusi direla ere euskararen hizkuntza normalizazioaren bidean.

Barneari dagokionez esandakoa eta gehiago. Hogeita hamar urtetan zehar hitz eta diskurtsoez gain, UPNren Gobernuak ez zuten foruzaingo integral bat lortzeko borondate politikorik. Denboraldi guzti honetan zehar argi geratu da Estatuak eta orduko Foru Gobernuak elkarbanatzen zuten eredu bigarren mailako foruzaingoarena zela, Estatuko Indar eta Gorpuen menpekota eta ia kompetentziarik gabekoa. 2015etik aurrera Uxue Barkosen Gobernuaren apustua argia eta aho betekoa izan da Foruzaingo integrala lortzearen alde eta Nafarroan zentratutako polizia ereduaren alde. Esklusibotasun eredu horrek, kompetentzia eta funtzio berberak dituzte polizia kidego ugari aldi berean dituen gaur egungo eredu gutxinaka ordezkatu beharko du, egungoa ilogikoa, inefikaza eta garestiegia justifikaziorik ez edukitzeko. Zentzu honetan eta helburu honekin, Estatuak egiteke dauden kompetentzien transferentzia lortzearen aldeko apustua nabarmendu beharra dago legegintzaldi honetan, hots trafiko eta bide segurtasunarena edo ingurumenarena; Parlamentuak Polizien Foru Lege berria onartu zuen edo 2017-2021 Foruzaingoaren Plan Zuzendariaren idazketa. Alor honetan ere nabarmentzekoak dira SOS Navarra larrialdien kudeaketarako zentroa arautzeko egin diren lanak; Suhiltzaileen Plan Zuzendaria; Larrialdi planen eta babes zibilerako planen eguneratzeak bai eta Suhiltzaile eta Foruzaingo plazetarako modu espezifikoa deituriko LEPak.

Justizia alorrean legegintzaldi honetan Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila erreformatzeko eta egungo gizartearen errealitatera eguneratzeko hasi eta amaitu den lana nabarmendu beharra dago. Ofizio txandari duintasuna emateko bideari ekin zaio ere Abokatuen Elkargo Profesionalekin akordioak eginez eta 2012an murriztu ziren doako justiziaren prezioak leheneratu dira ere. Era berean, kudeaketa prozesalaren hobekuntzarako apustu sendoa egin da, horretarako berrikuntza teknologikoko tresnak erabiliz, eta gatazkei konponbidea emateko bitartekaritza eta kontziliazio programak finkatu dira ere penal, zibil eta merkantil alorretan justiziako programaren osagarri moduan.

Proposamenak

1. LEHENDAKARITZA ETA FUNTZIO PUBLIKOA

- › Estatuak oraindik transferitu ez dituen konpetentzien negoziazioa, horretarako beharrezkoak diren transferentziak eginez eta bereziki ondokoak geureganatzea; trafiko eta bide segurtasuna; I+G+b eta espesxeak.
- › Gobernu Irekiaren Foru Lege berrian aurreikusten diren mekanismoak garatu jarduera publikoan eta Gobernu ekintzan gardentasuna handiagoa izan dadin, bai eta herri partaidetzarako espazioetan sakontzeko.
- › Nafarroako Jauregiko eta Artxibo zaharrek instalazioak egokitzeko hasi diren zaharberritze lanak amaitu, baldintza fisiko egokiak bermatuz.
- › Izero pertsonala duten datuen babeserako eta administrarritza elektorikoko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen neurriak ezartzeko beharrezko prozesuen garapena. Banda Zabalaren Plan Zuzendariaren garapena, sareak lurralde osoan hedatzeko eta horrela teknologia berrien onurak herritarrei, administrarritzei eta enpresei helaraziz.
- › Jada egindako hausnarketa lanetik abiatuz, Nafarroako Administarritza Publikoen zerbitzura dauden Langileen Estatutuaren Erreforma burutu (egitura, sarrera sistemaren berrikusketa, karrera administratiboa) horrela gaur egungo errealitateari eta profesionaltasun, eraginkortasun, herritarrei irekiera eta beste irizpideetara egokituz.
- › Enplegu publiko egonkorraren alde egiten jarraitu, Lan Eskaintza Publikoen bitartez baimentzen diren plaza guztiak deituz. Lanpostuen lanbide eta hizkuntza profilak egokitzen jarraitu.
- › Bateriaezintasunen Foru Legearen aldatetari ekin, besteak beste goi kargu ohiei soldata osagarria kenduz. Funtzionarioen bateraezintasun erregimenaren segimendua garatzen jarraitu, bereziki zuzendaritza edo ardura karguak dituztenen kasuan, bai Administarritzan bai eta enpresa publikoetan ere.

2. BARNE SAILA

- › Legegintzaldi honetan 2021 urteko jomugarako onartu den Foruzaingoaren Plan Zuzendariaren onarpena eta garapena bultzatu, foruzaingo integrala lortzeko helburuarekin, Foruaren Hobekuntzak aitortzen dituen konpetentzia guztiekin (trafiko, herri segurtasuna, ingurumena, ikuskizunak).
- › Nafarroako Polizien Foru Lege berria garatu, horretarako beharrezkoak diren lege tresnak erabiliz, eta poliziaren antolakuntzarako kalitatearen kulturaren sakondu. Plan Zuzendarian ezartzen den beharrezko polizia kopuruaren arabera lan eskaintzak planifikatu.
- › Aranguren-Sanquinen instalazio egoki berri batzuk errealitate izateko beharrezko jarduketak egin, horrela Foruzaingoaren komisariotza berria, segurtasun eta larrialdi eskola, segurtasun eta babes zibilerako politiken zerbitzuak eta Barne saileko administrarritza eta lege zerbitzuak bertan zentralizatu.

- › Foruzaingoaren eta Nafarroako udaltzain guztiekin koordinazio eraginkorra lortzeko lankidetzak hitzarmenak eta kudeaketa tresnak garatzen jarraitu.
- › Segurtasun eta larrialdien eskola sustatzearen eta bultzatzearen alde egiten jarraitu.
- › Legegintzaldi honetan landu den Suhiltzaileen Plan Zuzendari berriaren idazketa amaitu.
- › SOS Navarra 112 Zentroaren araudi berria garatu, bere antolakuntza eta zerbitzuak XXI mendera egokitzeko, larrialdien arretarako areto bakar moduan. Larrialdi plan ezberdinen berrikusketa eta eguneratzearekin jarraitu. Larrialdien prebentzioan hobetzeko tresna moduan autobabesa sustatu.

3. JUSTICIA

- › Barneko langileekin komunikazio guztiak egiteko eta lekualdatzea ekiditeko Iruñeko Espetxe zentrorako diseinatu den Bulego Judizialaren garapena.
- › Alor soziosanitarioan espetxe konpetentziaren transferentzia burutu.
- › Bitartekaritza prozesuen garapenaren alde egiten jarraitu, gatazkei konponbidea emateko Justiziaren bidearekin sistema osagarri moduan.
- › Justizia Jauregiko instalazioak eta baliabideak hobetzeko neurriak.

www.geroabai.com



GEROABAI

LA NAVARRA DE TODOS/AS
GUZTION NAFARROA